

FITO RODRIGUEZ

FAUSTOREN ITZALA



© Fito Rodriguez

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2004ko iraila

ISBN: 84-933270-5-0

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banantzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

Gauaren erdian ere  
eguzkiari antzemateko gauza direnei ...

## HITZAURREA

Ezer ez da ematen duena, guztiz ez behintzat. Horren lekuko da nik hain gustuko dudan Historia. Irakatsi edo ikasi dugun Historian urratu txiki bat egin eta berehala konturatzen gara: ezer ez da ematen duena, guztiz ez behintzat.

Urratu horiek iturri historikoetara joz egin daitezke, baina badira ere iturri horietatik urratu ezin diren errealitate (historikoaren) zatiak. Eta zati horiek urratzeko tresnarik eragingarriena Literatura da, ezbairik gabe.

Adibide klasiko bat aipatuko dut: nobela pikareskoek Espainiako Urrezko Mendea deritzan hari buruz eskaintzen diguten informazioa ezingo genuke lortu Habsburgotarrek izenpeturiko errege agiri guztiak banan-banan aztertuta ere.

“Baina hori gertatuko da Literaturak, nobela pikareskoen kasuan gertatzen den bezala, gizarte jakin baten lekukotza errealista ematen duen neurrian”, esango du baten batek. Ez. Ez derrigorrez behintzat. Fikziorik gordinetik abiatuta ere errealitate (historikoaren) zati ederrak urra baitaitezke. Horra hor, esate baterako, Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak “Apoaren edertasuna”n grabatu zuten “William Druryren balada”, ingelesek Tedworthen erre omen zuten soinujole irlandes baten berri ematen duena. Darabildan gaiari dagokionez, Izagirrek kantari egiten dion

hitzaurrea antologikoa da: “XVII. mendeko benetako gertaera batean oinarritu gara ondoko bertso hauek moldatzerakoan, lekuak eta pertsonaiak errespetatuz. Baina Druyrik atabala jotzen omen zuen, eta ez eskusoinua, artean ez baitzen tresna hau sortua izan; ingelesa omen zen, ez irlandarra; ez omen zuten erre, kartzela baino ez zioten eman; Tedwortharrak ez omen ziren tristatu isiltasuna lortu zute-nean. Balada honen bidez, beraz, benetako gertaera historikoaren azpian gorderik dagoen egia jaso nahi izan dugu, dena manipulaturuz”.

Aurreko lerroetan bezain argi, eta aldi berean labur, inork gutxik azal dezake historia/errealitatearen eta literatura/fikzioaren artean dagoen harremana, niretzat behintzat, benetan kitzikagarria dena. Horregatik, Fito Rodriguezek orain dela urte dezente (hamarretik gora bai) nire eskuetan *Faustoren itzala*-ren lehenengo zirriborroa utzi zuenean, istorioak berehala harrapatu eta liluratu ere egin ninduela aitortu behar dut, bertan ezer ez zelako ematen zuena.

## **Baskongada, mozerro hutsa ote?**

Zirriborro hura irakurri arte, ezer gutxi nekien nik, ohiko topikoetatik harago, Euskal Herriko Adiskideen Errege Elkarteaz eta Elhuyar anaiez. Nekien apurra, funtsean, honela laburbil daiteke:

“La Bascongada” izan zen XVIII. mendean, Frantziatik zetozen haize berrien arrastoan, ekonomia eta, oro har, gizartea modernizatzeko berebiziko garrantzia izan zuen erakunde bat.

— Elhuyartarrak, berriz, Joan Jose eta Fausto, “Baskongada”ren itzalean sorturiko Bergarako Errege Mintegian lan egin zuten goi mailako zientzialariak izan ziren, wolframa isolatu zuten lehenak.

Alabaina, arestian esan bezala, ezer ez da ematen duena, guztiz ez behintzat, eta *Faustoren itzala*-k, literatur lana izanik ere, Fitok berak jorratutako oso oinarri historiko sendoko hipotesia zuen abiapuntu:

— “Baskongada”, oroz gain, Karlos III.arentzat helburu militar sekretuekin lan egin zuen erakunde bat izan zen. Helburu militar horiek hain ziren garrantzitsuak, ezen elkartearen gainerako jardun guztiak mozorrotzat ere jo litezkeen.

— Elhuyartarrak, berriz, helburu militar sekretu horien zerbitzuan lan egin zuten zientzialariak izan ziren.

Hipotesi erakargarri hori oinarritzat harturik, Joan Jose Elhuyarrek Fausto anaiari Kolonbiako erbestetik bidalitako gutun batzuk asmatzen zituen Fitok, eta horien bitartez urratu ederra egiten zion irakatsi ziguten “Baskongada”ri buruzko historiari, agerian utziz ezer ez dela ematen duena.

## Espioitzako operazio dokumentatu bat

*Faustoren itzala*-ren zirriborro hura irakurriz geroztik, Fitorekin topo egiten nuen bakoitzean, nobela edo dena delako proiektu hari “fundamentuz” heltzera animatzen nuen. Istorio hura biribildu eta argitaratu beharra zegoela behin eta berriro esaten nion. Alferrik, ordea, saltsa askotako perrexila den Fitok, nonbait indarrak beste lubaki batzuetan xahututa, ez baitzidan jaramonik egiten.

Baina orain dela hiru bat urte, animatzearekin konformatu ez eta, uste dut telefonoz ere deitu egin niola, haserre puntu batekin, gainera. Zergatik? *La Bascongada y el Ministerio de Marina* liburu argitaratu berria eskuartean nuelako. Bertan, Ines Pellon eta Pascual Roman irakasleek, Simancasko Artxibategian aurkitutako berrehun gutunen bitartez, “Baskongada”k Espainiako Koroaren aginduz buruturiko espioitza operazio garrantzitsu bat dokumen-

tatzen zuten, detaile handiarekin dokumentatu ere. Eta operazio hartan parte hartu zutenak ez ziren edonor, goigoi mailako pertsonak baizik: Koroaren aldetik, Gonzalez Kastejon Marina ministroa, tuterarra; “Baskongada”ren aldetik, berriz, Peñafloredako kondea eta Narrosko markesa; eta, azkenik, larrua arriskatu zuten bi agenteak, Inazio Montalbo nafarra eta... Joan Jose Elhuyar!

Gerraontzi espainiarrak, teorian, ingelesak baino boteretsuagoak ziren; praktikan, berriz, ingelesak azkarra-  
goak ziren eta, batez ere, askoz hobeto armatuta zeuden, Eskoziako Carronen fabrikatutako kanoiei esker. Hain justu, “Baskongada”ren espiotza operazioak Europako kanoi fabrikarik onenen sekretuak lortzea zuen helburu. Horretarako, Elhuyar Saxoniara eta Suediara joan zen, han baitziren kontinenteko kainoi fabrikarik onenak. Upsalan Bergman zientzialaria ezagutu zuen, eta hori erabakigarria izan zen zenbait urte geroago Bergarako Errege Mintegian Fausto anaiarekin batera wolframa isolatu ahal izateko. Montalbok, berriz, nobela independente baterako gaia ematen duen ibilbidea eginez, etsaiaren beraren bihotzera jo zuen, Carrongo fabrikara, alegia. Elhuyar ere hara joatekoa zen bere bidaia burutu aurretik.

Beraz, Fitok “Baskongada”ri buruz jorratutako hipotesiak inork uste izan zezakeen baino askoz oinarri historiko sendoagoa zuen. Eta, horrez gain, lehen aipaturiko Izagirreren hitzak geure eginez, Fitok “benetako gertaera historikoaren azpian gorderik zegoen egia” fikzioaren birtartez denen begi-bistan agertzeko aukera zukeen... baldin eta niri behingoz kasu egin eta *Faustoren itzala* argitaratzeko prest eduki izan balu. Ez zeukan prest, ordea, eta horregatik haserre-edo deitu nion. Egia esan, haserrealdi horrek beste ezer baino gehiago –lagunaren hobe beharrez aritzeko borondatea baino gehiago, alegia–, Fitoren istorioa, konturatu gabe ere, zein puntutaraino neure egina nuen islatzen zuen. Ezer ez da ematen duena, ez.

## Goethek txirikordatutako bi hari

Orain dela pare bat urte bere lehen literatur lan “ofiziala” argitaratu zuen Fitok: *Magrittek ez omen zuen pipatzen*. Oso gustura irakurri nuen, baina hor ez zegoen “nire” *Faustoren itzala*-ren arrastorik ere. Beraz, etsitzen hasia nintzen, harik eta egun batez Fitok orain eskuartean duzun liburuaren azken zirriborroetako bat irakurtzera eman zidan arte. Orduan, bi sentimendu nagusitu zitzaizkidan: alde batetik, poza –bazen ordua!, pentsatu nuen neure kolkorako– eta, bestetik, sorpresa. Sorpresa zergatik? Zirriborro berria nik gogoan nuen hura baino askoz aberatsagoa zelako, diferentzia handiarekin, gainera. Urte hauetan guztietan oker egon naiz, beraz. Fitok jaramonik egiten ez zidala eta *Faustoren itzala* kaxoiren batean ahanztirik zuela uste nuen nik. Zirriborro berriak, alabaina, argiro erakusten zuen idatzia urte hauetan guztietan kaxoiren batean eduki duela, gordeta bai, baina inolaz ere ez ahanztita, urte hauetan guztietan hazi baita, Fitok umotu baitu.

Honela, eskuartean duzun *Faustoren itzala*-k –jatorrizko bertsioak ez bezala– bi hari ditu, elkarren artean etengabe txirikordatzen direnak. Lehenengoa Joan Jose Elhuyarrek Fausto anaiari Kolonbiatik bidaltzen dizkion gutunek osatzen dute. Hari mutur horri tiraka, Elhuyararren sekretuarekin ez ezik, garai hartako giroarekin ere topo egingo du irakurleak. Ilustrazioa, erromantizismoaren hastapenak, Inkisizioa, masoneria, Ameriketako herrien independentzia gogo ernaldu berria... Bigarren haria, berriz, gure egunetan Ipar Europatik Euskal Herrira etorritako gazte baten istorioa da. Gazte horrek Upsalako Unibertsitatean noizbait galdu ziren Elhuyarren gutunak aurkitu eta hona ekarri ditu. Bere peripeziaren berri berak grabatutako bideoen bitartez ematen digu.

Bi hari muturren arteko txirikorda apainagoa izan dadin, Goethez baliatu da Fito, irakurleari keinu metaliterario



dotorea eginez. Faustoren sekretua Fausto Elhuyarrena izan daiteke, baina baita Goethek sorturiko pertsonaiarik garrantzitsuenarena ere. Ipar Europatik Euskal Herriratu-tako gazteak, berriz, Werther du izena, eta, hain justu, Goetheren “Werther” da gutunen bitartez egituratutako nobelen aitzindaria. *Faustoren itzala* ere gutunen bitartez egituratuta dago; alde batetik, Joan Jose Elhuyarren gutunen bitartez, eta, bestetik, gutun modernotzat jo daitezkeen Wertherren bideo zinten bitartez.

Bestalde, *Faustoren itzala*-ren istorio nagusia Elhuyarrena den arren –nobelaren abiapuntua den neurrian–, horrek ez du esan nahi Wertherren peripezia soil-soilik haren zerbitzura dagoenik edo berezko interesik ez duenik, Wertherrek kamera aurrean egiten dituen adierazpenek aukera ematen baitiote Fitori Eskandinaviako historiaz, herri eta hizkuntza gutxituen gainbeheraz, unibertsitateko egoeraz, euskaldunon izaeraz eta hainbat gairi buruz gogoeta egiteko. Nik Fito filosofiako irakaslea ere badela ahanzteko joera dut; berak ez, ordea, eta hori batez ere Wertherren diskurtsoan nabarmentzen da, testuaren zenbait pasarteri nobela itxura baino gehiago saiakera itxura emanaz. *Faustoren itzala*, berez, nobela da, nik ez dut horretaz duda handirik egiten (ez dut uste, gainera, genero sailkatze honek aparteko garrantzia duenik). Egia da, hala ere, Fito, *Magirttek ez omen zuen pipatzen*-en bezala, batzuetan generoen arteko mugalari bihurtzen dela. Badakizue, ezer ez da ematen duena, guztiz ez behintzat.

## Neure burua zuritu nahian

Bukatu aurretik, aitortu behar dut *Faustoren itzala* Fitorekin ia hasieratik konpartitzea luxu hutsa izan dela niretzat. Konpartitzeak konpromisoa dakar, ordea, eta horregatik, hitzaurrea prestatzeko eskatu zidanean, ezin

izan nion ezetz esan. Saiatu nintzen, hala ere, edozeinek –eta are gehiago lagunen artean dituen punta-puntako idazleetatik edozeinek– nik baino hobeto egin zezakeela argudiatuz. Baina bera tematu zen. Niri ez zitzaidan fundamentuzko ezer esan nezakeenik iruditzen, baina tira, lagunak erakutsitako konfiantzari zor niolako, azkenean, idatzi egin dut. Ezer ez delakoan ematen duena, jakina, guztiz ez behintzat.

Martin Anso

*Zuek, hainbeste egoera larritan  
laguntza emandako horiek,  
esadazue  
zeren zain zaudeten orain...*

Faustoren Preludioa,  
Johann Wolfgang Goethe

Bogotan  
Granada Berria  
1790aren irailaren 21an.

Ene anaia maitea:

Zazpi urte dituk hemen nagoela. Erbestera bidali ninduen Karlos III.a errege madarikatuaren aginduak 1783ko abenduaren hogeita hamaikagarren eguneko data zeukaan. Meategiak aitzakia, meategi lanetan segitzera kondenatzen ninduen ebazpenak indarrean zirauk.

Hemengo Erregeorde den Ezpeletako Joxerekin kasik astero bildu arren, ez diat ezertxo ere lortu, beti haserre bizian bukatzea ez bada. Jadanik inolako arrazoirik gabe ezarritako zigorrarekin bizitzera ohitzen ari nauk. Lehen bezala, Oionen eta Logroñon txertatu zidaten kristau fedea lagun, errukiaren zain nagok, baina gero eta zailagoa gertatzen zaidak adorean irmo jarraitu ahal izatea.

Gabonak hemen bakarrik pasatzea ez duk gauza gozoa. Ene bizitzan bidaia ugari egin behar izan badut ere, eguberriak elurrarekin loturik zeuzkaat oroimenean. Hautzaroko kontuak izango dituk. Hemen, berriz, beroa eta indiarren paganismoa besterik ez duk sumatzen. Eta askotan, okerrago oraindik, niregandik inoiz aldentzen ez den Inki-sizioaren itzal ilunaren laguntza iraingarri bezain beldurgarria izaten diat. Hiri bakarrik esango diat: beldur nauk.

Euskal Herrian giro alaia izango ditek sasoi honetan. Guk, oster, egin behar genuena ongi egiteagatik atzerrian gaudenok, tristezia edo malenkonia besterik ez diagu geure inguruan. Eta, gainera, jasan beharreko horri gure

egoera bereziari dagokion ikara gehitu behar zaionean, laster batean etor daitekeen heriotza (hilketa irakur ezak) ia mesedegarri sentitzen hasia nauk askotan.

Hauxe duk, funtsean, nire gutunaren mezua. Behar-bada, gauden garaian gaudelako eta gauden tokian gaudelako, herioaren presentzia bestetan baino nabarmenago egiten zaidak, baina, nolana ere, elkarren informazioa trukatzeko dauzkagun aukera gutxietariko bat ene susmo hauek ahal bezala azaltzeko profitatu nahi nian. Argi ibili heu ere, Fausto! Gauza gehiegi zakiagu, ezjakin ugari zagok munduan, eta, esango nitek, Hegoamerika hauetan inon baino gehiago! Mélange ederra, bada.

2002ko urtarrilaren 20an

## GURE AITAREN ETXEA DEFINITUKO DUT

Joan Joxe Elhuyarren eskutitza aitaren ogasuna zen. Upsalan ikasle zela eskuratu zuen eta niri helarazi zidan, euskara ikasten ari nintzela jakin zuenean.

— Begira, seme, nire paper zaharren artean aurkitu-tako dokumentu hau. Ez dakit zein hizkuntza erabili zuten idazteko, ez eta Upsalako laborategian zer egiten zuen ere, baina zuk gustuko daukazunez hizkuntza kontu horiek...!

Donostian nago San Sebastian egunean. Aitaren etxetik urrun. Hiri osoa mozkor-mozkorra egonik, giro horretan ni primeran. Mota honetako bizipenek kulturari buruzko aurreiritziak aldatuko lizkiokete edozein jakintsuri. Bertan suma daitekeen bat-bateko giro mudadura izugarria, agian, izurrite batekin pareka zitekeen, baina azken honek, zurrutaren eraginarekin konparaturik, nekez eduki zezakeen alde aurretik hemengo mozkorraldiak behar dituen prestakuntza eta kontsentsua. Zintzur guztia patar eta sabela ordoki den bertako mozkorraldi kolektibo honetan ezin naiz gusturago sentitu. Behintzat, hau bezalako danbor hotsek ni deitzen nautela iruditzen zait. Nire etxea hemen egiteko. Bertan geratzeko. Euskaldun bihurtzeko. Badarik ere, mozkor gaiztoak badira, baina ez da gose onik.

Denboratik gauza apurra, orain hau dugu, eta ez besterik. Ordea, norik erranen du zenbat balio duen orain honek? Iraute, iraupe eta bitarte ttipi, apur, labur honek?

Elhuyar Aldizkarian irakurri nuen Joan Joxeren heriotza (hilketa?). Aspaldikoa izanda ere, ukitu ninduen zeharo. Elhuyar zaharrak, Herio bere bila zebilela jakin arren, ezin izan zuen patua saihestu. Aitzitik, bere bizitza osoan patua gailendu zitzaioala argi eta garbi geratu zen. Faustori, bere anaiari, gertaera hauen berri eman nahi izan eta, era berean, berak urteetan gordetako sekretu ezkutue-nak helarazten zizkion horrela. Patuaren aurkako matxina-da pertsonala zirudien Joan Joxeren ahaleginak.

Mundu berri oso bat sortzen ari zelarik, mundu berri-tik idazten zion Elhuyar zaharrak gazteari. Ameriketatik Europara. Modernitatearen hastapenetatik, erregimen za-harraren ahalkeak biluziz. Espiritu faustikoa Faustori azal-duz.

J.W. Goethek bere idazkiak argitaratu zituen garai bertsuan, erromantizismoak gaztetasunaren jiteak gorai-patzen zituenean hil zuten Joan Joxe, kontinente berrian. Aurkitutako azken lurretan bizia galdu zuen Kimika fun-datzeako azkenetariko osagarria aurkitu zuen zientzialari euskaldunak.

Goetheren hasierako literaturan, gazteak ziren prota-gonistak: G. Meister ikaslea edo nirea bezalako izena dara-man Werther gaztearen nahigabeak...

Gazteak izaki, ezin zituzten beren sentimenduak men-deratu, baina, hori gaitza izan beharrean, haien edertasu-naren oinarritzat jotzen zuen *Sturm und Drange*ko egileak.

Gazteak izaki, egolatria gailentzen zen haien erabakie-tan. Hura, ordea, eredu etikoa izatera ere iritsi zen erro-mantizismoaren jarraitzaileentzat.

Gaztea hil nahi izanez, bere buruaz beste egin zuen ene izena daraman Goetheren pertsonaia ezagunak. Gizaba-nakotasunaren goraipamena, gaztetasunaren apologia, bi-zitzaren aldeko hautua ("*Carpe diem*" latindarra berresku-ratua), hori guztia zen lehenengo Goetheren mezua.

Estreinaldiko proposamen hura, oster, leunduz joan omen zen Goetheren eta, bide batez, erromantizismoaren heldutasunarekin. Faustok heriotza saihestuko eta gazte irautea lortuko du Goetheren antzerkian. Ez dira Wert-herren gutunen bidez helduko ilustrazio modernoaren mandatuak. Antzerki bihurturik, Faustok betirako gazte-tasuna erdiestea lortuko du. Asmatuko du betiko. Ediren honetan, desestaltzean, aditzera ematen da moderniarene gezurra: Mefistofelesekiko hitzarmena.

Izan da erran duenik denbora ez dela deus, hartaz oroitzapenik eta pentsatzerik ez denean.

Berpizkundetik eskuratutako klasizismoak neurria zekarren berarekin. Baita bizitzaren neurria ere. Modernitatearen arrazoiak horri eutsi zion. Dena da neurkizuna eta gizakiak bere neurrira antolatu behar du mundua. Voltaireren Kandido izan zen ikuspegi horren protagonista literarioa. Arrazoizkoa ez zen oro hiltzen zuen. Kartzela beltzean amaitu zituen bere egunak espiritu argien aldeko asasinoak.

Kontraesankorra dugu geure egungo bizimoduaren hastapena. Alde batetik, gizabanakoa dugu neurria, bere berekoikeria eta guzti, baina, modu berean, arrazoiaren arabera, inolako giza interferentziarik onartu gabe neurtu beharra dago mundua. Goethek, Faustoren bidez proposatutakoan, errandako kontraesana gainditu nahi izan zuen, bere buruaz beste egin gabe gazte irautea lortzen zuen pertsonaia eskainiz. Zahartzea, sentontzea, urte anitzez bizi-zea, bere egitez on da, Jainkoaren donua eta dohaina da, erran ohi den bezala. Moderniarene irudia azalarazi zigun. Nitasun iraunkor gaztea. Honetan finkatu zuen itxaropena.

Baina gezurrezkoa suertatu zen haren antzerkia. Birritan saiatu arren, ez zuen Fausto sinesgarririk lortu, nahiz eta haren lilurak orain arte jarraitu.



Ekinaren ekinez landutako espiritu faustikoa dugu gaurko estetika, etika, politika eta mundua. Egungo esperantza bakarra da egin orduko amaitzen den jarduna. Etengabe berregiten den mendebaldarren zibilizazioa, zeinak, Peneloperen mitoaren antzera, amaigabetasuna duen ardatz. Heldugabetasuna eredu eta gaztetasunaren saiakera prometeikoa helbide.

Faustok horixe bera islatzen du. Inoiz hilen ez den gaztearen irudikapena, antzezpena, itzaropena... gezurra!

Nitasunean oinarritutako saiakera gazteak ezin du gutasun zaharra onartu, berori gainditu behar duen neurrian. Ezin du egitatea onetsi, ekintzak behar ditu eta. Herri zaharrak eta tradizioa alboratzeko dira, modernitate faustikoaren ustean.

Horixe bururatu zitzaidan, gure aitak Upsalan eskuratutako aurkikuntza horien berri ematen zuen eskutitza lortu nuenean.

— Hau izugarria da! Urteetan gordetako sekretu bat nire eskuetara iritsi berri da, mendeak ezkutatutik pasatu eta gero.

Lehenengo Goetheren antzera, lehenengo Elhuyarrek gutunaren bidez azaldu nahi izan zuen bere sekretua. Mendeetan zehar ezkutuan egon eta gero, agerian geratu zena banuen agerrarazterik. Horrek nire bizitza aldatuko zukeelakoan nengoen. Nire historia eta, bere neurrian, Zientziaren Historia bera ere aldatuko zuela uste nuen... baina honek ere bere istorioa badu. Pasadizo krudela bezain komikoa. Izan ere, umorea norberaren egoera bestearen desgraziarekin erkatzean baitatza, berez. Horra hor guri grazia egiten diguna, bestearen desgrazia hura, hain justu. Horregatik, tristea eta barregarria da, biak batera, niri jazotakoa.

*Udaberriak lore gisa bere euria isurtzen duenean,  
zelaien bedeinkapen berdea agertzen denean,  
gauza ororen gainetik hori guztia azaltzean,  
Lurretik jaiotakoen aurrean  
materiarik gabeko elfoak  
laguntzera doaz  
gizaki tristearengana inguratuz,  
sainduarekin zein bekatariarekin errukituz*

**Fausto II. Lehenengo zatia.**

Bogotan  
Granada Berria  
1796aren irailaren 28an.

(jarraipena...)

Gogoan ditiat Bordelen igarotako urteak eta nolakoak ziren hango abenduak eta hango abenturak. Arnoa eta neskatxak. Bordele burdela, fraide jesuitak gure ohiturez tutik jakin gabe egonda, edo, hobeto esanda, horrexegatik, hain zuzen. Ez genian uste, hala ere, garai hartako Alaxa, Munibe edo Egia gure Judas bihurtuko zirenik. Madari-katuak! Aurreikusi arren, itsututa geundean. Gogoratzen diat duela hogeita hamar urte Peñafloidak idatzi eta zuzendutako antzezlanana, *El Borracho burlado* (Adarra jo zioten mozkorra...), bera bezala, bi hizkuntzak erabili arren, saski-naskia besterik ez zena. Gazteleraz hasi, euskaraz jarraitu eta, azkenik, sekulako nahaspila! Haien guztien artean, pertsona bakarra zaukaat gogoko egun: Bikuñako Manuel. Nahiz eta Peñafloidaren morroia izan, laguna izaten segitzen dik. Besteak beste, bazakiat, noski, gure arrebatxoa bere etxean gordeta dagoela. Gauzak dauden bezala, ez duk gutxi, gero!

Aspaldi ez dela etorri zaidak, familiaren berriak emanez, herorrek bidalitako Humboldt zalduna. Jatorra benetan! Berak esanda zakiat Mexikon Meategien Zuzendari Nagusi gisa ari haizena eta Meatzaritzako Errege Mintegia ere sortu nahian habilena. Bejondeiala! Horrek pozten naik, adierazten baitu ni bezain gaizki ez hagoela;

baina, berriro diosat, argi ibili, gure etsaiak ez dituk gutxi, ezta txiroak ere!

Humboldtekin aspaldidanik izan gabeko solasaldi haietariko bat gozatzeko parada izan diat. Denetik hitz egin diagu, oroitzapen zaharrez eta teoria berriez, jende ezagunaz, Europako berriez eta abarrez. Espainola jakiteaz gain, euskara ere pixka bat bazakik, eta harritu egin naik. Geure informazio trukaketarako erabiltzen dugun hizkuntza ezezagun hau ulertu ahal izateak susmo handia sortu zidak. Ongi egiten al dugu papereraten dugun guztia guk ez eze beste inork ere ezagut dezakeen hizkuntzan egitearekin? Batek zakik! Hil arte, susmoan bizitzera behartuta nagoela zirudik...

Hala eta guztiz ere, adierazitakoaren arabera, prusiar horrekin elkartzea azken bolada honetan fortunatu zaidan esperientziarik aberatsena izan duk. Berak ongi ezagutzen dik gure eskola zen Parisko College Royal-a, eta gure irakasle ziren D'Arcet eta Roeuelleren izkribuak, adibidez, oraindik gogoan ditik. Bidaiatzeko duen metodo apodemikoa dela medio, eta bidaiia guztietan gu baino askoz askeago ibiltzeagatik, dena gordetzen dik bere buruaren heziketarako. Horixe duk European oso hedatua omen dagoen heziera. Beste hitz batzuetan esanda, bidaiak direla medio metatutako hezkuntza.

Gogorarazi zidak duela hamar urte Suediara egindako bidaiia zela-eta egindako zenbait kontaktu. Haien artean, J.W. Goethe izeneko abokatu batekin. Nik ezagutu nuen, Potsdamen egonagatik, Estrasburgon ikasi zian lanbidea, eta Suitzan ere egona zuan. Frantsesa bazekian, Frantzia bera, jakina, oso gustuko ez izan arren. Hire izena daraman antzerki arrakastatsu bat sortu omen dik aurtan.

Badakianez, Suediatik bueltan, Eskozian geratzeko aukeran egon ninduan, baita geratu ere. Ez zuan gauza erraza izan; Gaztelako Erregearen aurkako guda hastear

zegoan, eta beldur ninduan ez ote ninduten espioitzat hartuko. Beti metalurgiaren inguruko gaiez interesaturik, Glasgow eta Edinburgheko lantegiak bisitatzeko saiaturik ninduan, baina alferrik. Hango artilleria edonori inbidia sortzeko modukoa zuan, benetan. Bi zentzutan: artilea eta kanoiak. Ardia/Altzairua. Intendentzia/Logistika. Pare horri esker, armada-toki diagu Eskozia, baina, zoritxarrez, ez bakarrik eskoziarren armadarena. Ingelesena ere hantxe zagok kokaturik, aspalditik gainera, bertakoen kontrako guda latz eta luzean.

Altzairu lantegiak, ordea, ingelesena dituk, eta horrek istorio honen patua bideratuko dik, ezinbestean. Azalduko diat.

XV. mendetik, Edinburgheko gaztelua atzerritarren mende aurkitzen duk; ingelesen esku, hain zuzen. Bertatik etengabe zelatan zaudek *Mills Mount*eko bateriak eta *Mons Meg* kanoi erraldoi famatuak. Eskoziarrek, berriz, ez ditek amore ematen ingelesen aurrean eta, haiei esker, handik eroso ateratzea lortu nian. Haien laguntzaz, Eskoziako hegoaldetik alde egiten eta *Highlands* deitutako lurraldeetara heldu ninduan. Saihestu behar izan genian soldadu britainiarrentzat Glasgowtik *Highlands* zeharkatuz egiten ari zen galtzada militarra eta, askotan, sasi artean ibiliz lortu genian geure helburua. Behinola, “*Bonnie Prince Charlie*”ren (Karlos Printzea) jarraitzaileekin elkartu ondoren, ene burua salbatutzat jo nian; eskoziarrei esker, egia esanda. *Kyle of Lochalsh* kaitik *Skye* irlara pasa eta bertan Mac-Donalds leinukoen laguntzaz etxeratu ninduan. Badarik ere, Flora Mac-Donald, jakobinoen buru zen Charles Edouard Stuarthen amorante izandakoa, holako ihesak prestatzen iaioa zuan, zeren, diotenez, berak neskame irlandarrez mozarrotu behar izan zian, “Karlos Printze onak” bertatik alde egin zezan, nirekin egindako bide bera erabiliz. Sukaldetik kanpo ibiltzen dakiten beste

emakume horietariko bat diagu hau. Oraindik bizirik egongo ahal duk eta Jainkoak zainduko ahal dik!

Arriskutsua izan arren, Britainia Handian sartu ninduan; izan ere, bertan ezer gutxi ikasi. Askoz ere garrantzitsuagoak izan zituan, Suedian, Hhjelm eta Scheele irakasleekin egindako metalurgiako esperimentuak eta ondoren lortutako emaitza arrakastatsuak, noski. Hala ere, ene zoritxarraren gakoa, neurri handi batean, handik datorkidala esan zezakeat. Oraindik ez diat ulertzen Kastejonek zergatik ez duen sinetsi nahi izan kanoiak egiteko formularik ez nuela erdietsi. Harentzat, “Harri pisuaren” aurkikuntza iruzurra izan duk, eta, Simancas ondoko herririka hartan bildu ginenean, ez zidala inoiz barkatuko adierazi zidaan. Geroztik halaxe gertatu zaidak, alafede!

2002ko maiatzaren 4an

## HYVÄÄ PÄIVÄÄ

Egun on esateko, suomieraz erabiltzen dugun esaera da hau. Baina hau ez da euskaraz aritzeko ikasi nuen lehenengo esaldia.

Nire izena Werther da.

Horixe bera izan zen euskaraz erran nuen lehenengo gauza:

— Kaixo, egunon...!

— Werther Bernadotte Aikio nauzue.

Joensuun jaiotako ikaslea. Erasmus–Socrates ikasleria-  
ren mugikortasunerako Europako egitasmoaren bidez  
Euskal Herriratutakoa. Ez dakit azaldu nahi dudan guztia  
euskaraz behar bezala kontatuko dizuedan, zeren, zuen  
hizkuntza maite arren, oraindik zalantza asko dut (ditut?)  
bat-batean aritzerakoan. Herritartasuna suomitarra badut  
ere, ez nuke neure burua suomitartzat joko, ama saamitarra  
baitut. Hau da, Laponiako ipar lautadetan aspalditik bizi  
den saamitar herriak ez du estaturik eta, era berean, ez du  
estaturik onartzen. Saamitarrak Europako Kola penintsu-  
laz aparte, Eskandinaviako Finlandian, Norvegian eta bes-  
te estatu batzuetako lurretan sakabanaturik daude, ipar or-  
katzaren artzaintza ogibide dutela (hiztegiak elur-oreina  
dio ipar orkatzaren partez, baina, ene uste apalean, gureek  
gehiago daukate orkatzetik oreinetik baino). Beraz, herri  
ibiltaria da gure amarena.

— Gu iparraldeko ijitoak gaituk! -erraten zidan amak,  
inguruan gure hizkuntza aditzeak sortzen zuen harriduraz

ohartzean. Eta ejiptano zaharren antzera, erraten zidan, "jarraiki hadi heure bihotzari, eta begitartea argi dakiala bizi haizeino".

Mugaz gaindi, mendeetan zehar, oraingo Europa berrira iritsi den europarra izan gabe, baina gainerako europar herriak bezain errotua Europa zaharrean. Ijito edo buhame gisa aritu da gure herria. Eta horrelako traturik eskuratu izan du, iparralde hartako herritarren aldetik. Aitzitik beharko luke izan, ordea. Izan ere, finlandiarrak baitira berez Hungariako magyar herri ijitoekin lotura duten herria eta ez gu, baina, historiaren ironiaz, alderantziz jazotzen da. Ez da nortasun juridikorik onartu, are gutxiago politikorik, guretzat. Gure hizkuntzaren berezko transmisioa etenda dago.

— Honezkero agure horren hizkera inor gutxik ulertzen du –aitatu zidan amak behinola—. Bere taldeko azkena izanik, ia mutu gisa dabil eskale, eta hizketan hasten denean, berriz, jendeak ez dio kasurik egiten, nekez ulertzen baitzaio...

Ohiko bizimodua eta kultura galbidean duen herrikoa naiz, baina horretaz guztiaz neroni ere beranduegi jabetu nintzen.

— Ama, geurea bai harrigarria dela –horrelakoa zen amarenganako nire jabaldura– zaharren hizkera ulertu gabe ari gara geure artean arbasoen hizkuntza erabili nahian.

Errandako gisan, Joensuun jaio nintzenez, Finlandiako hego-ekialdean sortua naiz mundura. Beharbada, eta, zehatzagoa izateko, Finlandia baino areago, Karelia adierazi beharko nuke... edo Hego-Karelia, hobeto erranda, eta, zona hartan ez dago saamitarren arrastorik, ez eta, kareliarrenik ere. Sobietar Iraultzarekin batera, Finlandiak bere independentzia lortu zuenean, aspaldidanik berreskuratu eta duindu nahi zen suomiera hizkuntza estatu berriaren zereginetan oinarrizko lanabes bihurtu zuten (baina honetaz beste une batean hitz egingen dugu...).



— Finlandia independentea izan ez balitz, ziur asko denok errusieraz hitz egingen genuke—, esaten zidan amak.

Kontua da, Karelia bezalako lautadetan, suomitar jatorrizko biztanleriarekin batera, kareliarrak bizi zirela karelieraz. Independentzia osteko garai haietan (eta Sobiet Batasunarekiko mugaren aldaketak gorabehera), eramandako suomizazio prozesua zela medio, hala toponimia nola gentilizioak, patronimikoak eta abar suomieraz adieraziak izan ziren derrigorrez eta, ondorioz, kareliar hizkuntzako erreferente guztiak desagertuz joan ziren, oraingo egoerara heldu arte, zeinetan kareliar arrastoak Hego-Karelian guztiz ezabaturik dauden.

Niri, adibidez, hau gertatu zitzaidan; ikaskide izandako batek honela esan zidan behin:

— Enteratu naiz aitona-amonen abizena beste bat zela; Finlandiako independentziarekin batera aldatu zuten eta, gainera, oroimenaren harira, beren artean, ahapeka betiere, beste hizkuntza erabiltzen zutela ere etorri zait gogora.

Hau da, Finlandiako Joensuuko Unibertsitatean ere, ikasleek nekez dakite lur umel haietan, suomieraz aparte, beste mintzairaren bat erabili izan denik. Areago, mugaren gertutasunagatik eta suomitar nazionalismoaren eraginez, kareliera eta kareliarrak oraingo Errusietako edota lehenagoko Sobietar Batasuneko hizkuntza eta kultura direla uste du jendeak.

— Hizkera hura kanpotarra duk, mugaz bestaldekoa— erraten zigun arrandegiko saltzaileak gure ezjakintasunaz oharturik.

Gure ama, dena den, ez zen kareliarra, saamitarra baizik. Rovaniemikoa, hain zuzen. Irakasle ikasketak egin zituelako etorri zen Joensuu aldera, eta bertako Unibertsitatean Hezkuntza Zientzietako lizentzia eta doktoretza ere eskuratu zituen, Unibertsitateko irakasle bilakaturik. Hantxe, lanean, jatorri norvegiarra duen Christian Bernadotte gure aita ezagutu eta senartzat hartu zuen.

— Zertara etorri zara zu hona... –esan omen zion hastapenetan mesfidati gure ama zenak gure aita izango zen horri.

Aitak kimikako eskolak ematen zituen Zientzia Fakultatean, eta Zientziaren Historiari buruzko mintegian elkartu ziren lehen aldian. Jatorri eta formazio desberdinek, eragozpen baino gehiago, akuilu gisa eragin zioten beren arteko harremanari, eta oraintxe arte iraunarazi du hasierako erakarpena. Egun, ama hilik badago ere, beren arteko erlazio bereziak nire aitarengan baduela pisua erranen nuke.

— Iragana erabiltzea ezinezkoa zaidak –ihardesten zuen aitak—. Amari erran behar zioat, errepikatzen diat beti, hura gurekin ez dagoela ohartu gabe.

Aipatu harreman sakonak hunkiturik (Ediporen itzal luzea nonbait...), Filosofia ikasketetan sartu nintzen. Harगतिक ere, ez nuen garbi gauza handirik, eta erantzun gabeko galdera asko, ordea. Eta horretantxe aurkitu nuen Erasmus Programaren aukera herritik jalgitzeko, behar nuen distantzia hartzeko eta, finean, neure burua baretuz joateko. Horregatik nago Euskal Herrian. Hala ere, eramandako bideak argibide gehiago eskatzen duelakoan nago. Hori dela eta ari naiz bururatzen zaidan gutzia bideo grabagailu honen aurrean botatzen, hizkera trakets ez bada ere. Bertan ikusten duzuen gazteak ez du ematen finesaren arketipoa inondik inora, baina, Axularri kasu!, *Xuxen ikusteko beha bi aldiz bederen, eder ikusteko behin aski dela*. Nik, behintzat, hamaika aldiz entzun behar izan dut:

— Hi, muturbeltza!...

Ez naiz ni zurbila, ez eta argaltxoa ere... Leinu nahasiaren ezpala nauzue: Gainera, ez dakit inori axola zaizkion nire bizitza eta pasadizoak, nire istorioak eta konstatuko dudako historia.... baina bota beharra daukat.

Agian, hemengo gure kondaira (gurea diot, inoiz ikusentzuleren bat egon daitekeelakoan...) galduko da, baina

ezin dut ahalegindu gabe gaurko honetan eta dagoen bezala utzi. Horrexegatik ari naiz hizketan, eta kontatu nahi dut aurkitutako dokumentuetan galarazi egin nahi izan dutena: Faustoren sekretua.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Honezkero jakingo duanez, duela ia sei urte bidali-tako mezua ez zuan nik uste bezain segurua eta, ondorioz, kartzelatua izan ninduan. Asko sufritu behar izan diat, Jainkoak bidali didan bolada goibel luze honetan, eta, bakardadearen eraginez, erotuko nintzela pentsatzera ere heldu nauk.

Hori dela eta, bakardadearen mamua aldentzeko, aurreko gutun hartan agindutako guztia kontatzera natorrik. Ez duk erraza izango, baina, aurretik izandako hutsak desanimatu orde, indartu egiten naik, ordu hartan erabakitakoari eusteko. Gauza asko jokoan daudenez, inori ezer ez azaltzea eskertuko niake. Agidanean, hi izango haiz sekretu hauen guztien gordailuzain bakarra. Berarengatik utzi nian neure ondra, eta, ustez, laster utziko diat bizia. Hirezat ez diat horrelakorik desiratzen. Gorde itzak, bada, ondra, bizia eta ene sekretua.

Alde batetik, eta oraindik froga zehatzik ez badut ere, ene susmoak areagotuz zoazak. Bestetik, darabilgun bidez aski ziur nagoenez, orain arte kontatu ez diadan zerbait azaltzea deliberatu diat. Biontzat ikaragarritzko garrantzia eduki dezakeen zerbait.

Afera sinplea ez denez, hik behar den bezala konprenitzeko, puntuz puntu joango nauk muina agertzen. Fun-tsean, dagoeneko ezagunak zaizkian datu batzuen beste

aldea agertzea besterik ez duk. Alde sekretua, hain zuzen. Hik heuk eta gure inguruko kasik beste inortxok ere nabaritu ez duen beste ikusmira bat azalaraztea suposatzen dik honek. Egia esanda, erabat urduri nagok, baina, adierazi bezala, astiro joan nadin. Hemen daukak.

Lehenengo eta behin, gure aita zenaren irudia ekarri behar diagu gogora. On Johannesek egindako bidaiak eta ikasketak ez baitzituen berak bakarrik ordaindu. Agian hik honi behar bezala orain arte erreparatu ez badiok ere, bere testamentuan gure heziketari buruz agertutako gastua, berak zeukan ogasunez soilik, ezin izango zikean inolaz ere estali.

Arraroa iruditzen bazaik ere, aitaren atzean erakunde sekretu bat zegoan. Izenik ez diat aipatuko, baina, hiltzen naizenean, haietariko bat hireganatuko duk, familiarekiko haria moztu ez dadin.

Arrazoi hori dela medio, ulertuko duanez, goian adierazitakoaren orde, “gutariko” bat idatzi behar izango nitek; neronek ere aipatutako elkartean parte hartzen baitut. Areago, hemendik aurrera adieraziko dudan guztiaren gakoa oraintxe azaldutako baieztapen honetan oinarrituko duk.

Orain, gizajo sentitzen banauk ere, nerbioek jota egon arren, ez nauk egindako ezertaz damutzen. Lerro hauek idatzi arte, enegandik ez duk ezer jalgi. Hi izango haiz, nahitaez, aitorpen honen hartzaile bakarra, baita jarraitzailea ere. Ezinbestean.

Lehen adierazi bezala, Aita erakundeko kidea zuan. Horrexegatik utzi zian Iparraldea eta, amarekin batera, gazteleraz tutik ez jakin arren, Errioxako bidea hartu. Bertako “Ofizio Santua” deritzana berehala hasi zitzaion miatzen, baina, bertan betidanik eduki dugun fama onari esker, eragindako zurrumurru eta kuxkuxeatzeen partez, ondra nagusitu zuan, iritzi publikoaren aurrean. Lortu-

tako irudi garbia gehiago indartzeko, gainera, gu fraideetara bidali gintian, ikastera.

Areago, nahiz eta hire harridurarako izan, erakunde berekoak izan dituk, besteak beste, Samaniego edo Foronda hire lagunak, eta egun, “Ofizio Santuko familiakoa” izan arren, Narros Markesa bera ere bai. Azken honek, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Idazkari Iraunkorra den neurrian, erakundearen eta Elkartearen artean dagoen loturaren berri ematen ziguk, baina hori guztia geroxeago azalduko diat.

2002ko maiatzaren 10ean

## EN OSAA PUHUA SUOMEA

“Ez naiz suomieraz mintzatzen”, erraten omen zuen haurtzaroan, suomieraz, gure ama zenak. Urte sasoiaren arabera, udan, gehienetan jaisten zen Rovaniemira amaren sendia. Ipar orkatzen haragia, adarrak eta larruak, azerien letaginak eta abar saltzera jaisten ziren hango azoka amerikartura, non, gauerdiko eguzkiaz goatzera hurbildutako turistek benetako laponiarrei etxera eramateko oroigarriak erosi nahi zizkieten. Gehienetan, Tours Operatorreko gida suomitarrek itzultzaile moduan aritu nahi zuen, saamieraz jakin gabe noski. Turistak, berriz, amaren senideek beste hizkuntza bat erabiltzen zutenik ere ez ziren jabetzen, eta gure amak, “en osaa puhua suomea” errepi-katu ondoren, saiatu behar zuen Helsinkitik etorritakoarekin salneurria finkatzen, nola edo hala.

— Zenbat ordainduko zenuke zerorrek?... —hasi zen suomieraz, ia antzetzuz, ihakindatuz.

Laster ikasiko zuen suomiera, ordea. Baita ingelesa ere, bide batez. Lortutako sosa Rabintola izeneko jatetxe merkean otordua ordaintzeko lain balio zuen.

— Is there anything I can do about your accommodation?...

Autobus geltokiaren ezkerrean eta Shell gasolindegitik ehun metrora dago Rabintola... zegoen, behintzat! Gainera, gasolindegian, kanpin-gasa erosteko aukera bazegoen, ehunka kilometrotan aukera bakarra. Aitatu Rabintolan, “Ez naiz suomieraz mintzatzen” erran beharrik ez zuen,

hango zerbitzari gehienak saamitarrek ziren eta. Jakiak eta sukaldaritza mota suomitar erara bideraturik egonda ere, gustura zebilen gure ama gasolindegiko jantoki hartan.

— Oraindik hango arrain ketuaren usaina eta zaporea zetorkidak—, zioen askotan.

Horren pozik, ezen, haurra izateari uzten hasi zenetik, pittinka koskortzen, gazte bihurtzen zen bitartean eta Romanievira ikastera joan behar izan zuenean, bertan geratu baitzen apopilo. Orduan, alderantziz, saamiera ia ahazturik, hobeto mintzatzen zen suomieraz, bere arbasoen hizkuntzaz baino.

Saamiera estandarizatua ikasterik izan ez zuenez, aditzak eta esanahiak nahastu egiten zituen errazki.

— Nondik nator?

Eta galdera metafisikoa iruditu arren, berak hala esaten zuen maiz, saamitarren bati nondik zetorren saamieraz galdetzeko. (Niri, euskaraz aritzean, antzera gertatu zait maiz)

Orduan, amarentzat Inari herrixkan eta Lemmenjoki ibaian iragandako bizipenak lausotuz joan ziren. Orduan, fines bihurtzen hasi zen.

— Ezin dut hitz egin gure zaharrekin, baina gure gazteekin ere ez...!

Gure ama zenarengan, nolabait, saamitarren historia osoa islatzen zen. Herri txikientzat iragarritako kultura ia desagertu baten historia, alegia.

Hala non, gauza guztiek hizketan zekiten denboran, 1750era arte, Laponia, saamitarren lurra, ez zegoen estatu desberdinen artean sakabanaturik. Hemeretzigarren mendera arte, suediar legeak agintzen zuen iparraldeko lautada haietan (Lapland mugatik gora). Saamitarren lurra siidetan (eskualdeetan) banatuta zeuden eta haien artean mugarriak ezartzen ziren. Siidetako biztanleria saamitarrek zergak ordaintzen zizkion estatuari, maizterrak ziren neurrian,



baina eguneroko bizitza saamitar kulturaren arabera egoten zen antolatua. Hau da, mendeetan zehar, ohitura saamitarrak eta suediar legedia batera aritu ziren. Strömstad hitzarmenak (1751), aldiz, lehenengo muga jarri zuen saamitarren artean. Iparraldeko sasi-ijito ibiltari haiek gizaki heldu gabetzat hartuak izan dira betidanik, ez baitute inoiz estatu independenterik eduki, aitatasun faltan hezi baitira, nonbait. Adieraziriko hitzarmenetik aurrera, Laponiako lurak bitan banatu ziren (Norvegiaren eta Suediaren artean). Gero, berriz, lautan (Finlandia eta Errusia). Nolanahi ere, Strömstad idazkian, saamitar herriaren zenbait eskubide aipatua izan zen. Besteak beste, mugaz gaindi joan-jinka aritu ahal izatekoa eta herri bat eta bakarra izatekoa. Oraindik halaxe da, egun, herri ezaugarri gehienak, hizkuntza barne, ia ezabaturik egon arren.

— Herri ezabatua gara —adierazi ohi du Saamitarron Legebiltzarreko buruak.

Suediak, Errusiaren kontrako gerratean (1808an), Finlandia galdu zuenean, Suomi eskualde autonomo bihurtu zen, Errusiar inperioaren barruan. Nekazaritzaren hedapenak saamitar artzaintzarekiko gatazkak piztu zituen eta, 1840tik aurrera, “hesien legea” onartu zen, hitzez, orkatz-taldeak babesteko, baina, izatez, nekazarien interesei legezko estalia emateko. Saamitar ohitura zaharrak ez zituen hesiak onartzen eta, sortutako auzietan, galtzaile gelditzen ziren ia beti laponiarrak. Mota guztietako agindu, isun, lege eta abarrek eragin zuten saamitarren artean legeaz jabetzeko premia, baina, horrela, beren zuzenbidea jasotzen eta eraikitzen joan arren, ez zuten Norvegiako eta Errusietako agintariengandik onespenez erdietsi. Finlandian, berriz, urteetan zehar debekatu zitzairen sarrera, iparraldeko mugetatik.

Suediak gauza bera egin zuen, eta, oraindik, ene ustez, horrelaxe dirau arazoak. Saamitar eskubideak sakabana-

turik daude, estatu desberdinen arabera. Egun, Suediako saamiak joan daitezke Norvegiako larreetara, udan. Era berean, Norvegiako saamitarrek Suediako zelaietan aurki dezakete bazka. Hori guztia, Pohjoiskalottikomitea izeneko agirian onartuta dago, 1981etik hona.

Turistentzat saldu den saamitarren irudietan ez bezala, gure herriak eskarmentu handia metatu du lege, hizkuntza eta politika kontuetan. Mugaz gaindi (mugen kontra beharko genuke esan) iraun beharrak eleaniztun egin gaitu.

“Nondik zatoz?” esapidea suomieraz adierazita, diosala bihurtu zen gurean, jakiteko zer-nolako hizkuntza erabili beharra zegoen harremanetarako.

Denok etxeko saamieraz aritzeaz gain, Eskandinavia osoko hizkuntzak ezagutu behar izan ditugu, nola edo hala, geure bizimoduaren ardatz diren ibilaldietan. Ibilera latzak, gainera. Orain, tresneria berriagoarekin, ibiltzeko aukera hobea badago ere, ez dira gutxi izaten, ipar-orkatz taldearen zaintzan, edo galdutako bakar baten bila joategatik, 40º zeropean, gau beltzean, lo egin behar izan dutenak, sutondoan soinari eten gabeko bueltak emanez, ez kiskalia, ez izoztua izateko. Badakigu natura zer den. Ia ezerezaren erdian, bizirik irauteko moldatzen jakin behar izan dugu.

— Zer moduz?...

— Irauten...

Apenas urki azal batzuk eta elurraz ia estalitako saskiak izaten diren elikagai bakarrak... Hala ere, esandako guztia ez dut nik ezagutzen neronek bizi izan ditudalako, nire amaren bidez eskuratu ahal izan ditudan bizipenak direlako baizik. Aitona genuen Pekka saamitar buruzagiak kontatu zion berari eta berak niri. Aszeta batek bezala hitz egiten zigun bere altzora hurbiltzen ginenean.

— Kilo pare bat ipar-orkatz haragi gazitu aski duk negua pasatzeko.

Baina gure aitona ez zen Europako indiarra, biologiako ikasketak zituen artzain ilustratua baizik, eta ez zen bere herrian salbuespen. Erran dugun gisan, saamitarrek, beren ohiko bizimoduarekiko eta betiko ohiturekiko atxikimendu handiz bizi nahi izan badute ere, ez dira postaletan azaltzen diren bezain garaiz kanpokoak. Dena den, mundu garaikidetik, edozein natur aniztasun bezala, kanporatu egin nahi dutela dirudi; horren kontzientzia zeukan aitonak.

— Lehoinabarrak ez du orkatza agurtzen haren odola edoskitzerakoan baizik —errepikatu ohi zuen iparraldeko bizierak zaildutako gizonak.

— Gu ez gara suomitar, ez norvegiar, ezta suediarrek ere. Baina ez bakarrik gure hizkuntza desberdina delako, geure bizimodu desberdindua aspaldi eraman dugulako baizik. Horregatik, besteak dira gure hizkuntza eta kultura. Ez gara, beraz, gutxiengo linguistikoa, nazio bat eta bakarra baizik.

XIX. mendearen bukaeran, hamar familia saamitar joan ziren Norvegiatik Sompiora (Finlandia). Aldez aurretik, senitarteko haiek bost herritan (siidetan, lehen esan dudan bezala...) bizi ziren Norvegian (Kautokeinon, Rounalan, Sounttavvaran, Tingevaaran eta Peldojärvin), baina Finlandiako Sodankylära eta Sompiora aldatu ziren, ibiltariak zirelako, eta, neguan Laponiako basoak behar zituzten neurri berean, udan kostaldeko larreak eta Artikoko irletako belarra behar zuten, beren abereentzat. Aspaldiko ohituretan oinarriturik, lurraren erabilera zehazki banatua zuten.

Joan-etorriak aspaldikoak zirenez, goian zerrendatutako familiek haien jarraipena besterik ez zuten egiten. Senitarteko haiek aberatsak ziren (Hettarrak, Bongotarrak, Turitarrak, Eiratarrak, Baertarrak, Qvaenangentarrak, Beldowuobmetarrak, Saratarrak, Nicodemustarrak

eta Maggatarrak), eta etengabe ari ziren aldatzen, Norvegiatik Finlandiara eta Errusiar Inperioko lurretara. Izenak, hurrenez hurren, gogoan gordeta dauzkat oraindik, aitona horrenbestetan errepikatu ondoren.

— Ez ahaztu, Werther.

Hala ere, abeltzain horiek ez zeukaten nekazarien lur jabegoaren eskubiderik. Siiden legerian oinarritutako zuzenbideak ez zuen onartzen muga finkoak behar zituen estatu nazional berririk. Saamitarren ibilerak ez ziren zorizkoak edo halabeharrezkoak, guztiz beharrezkoak baizik.

— Abiatzeko sasoa heldu duk!... —esaten zen artaldea mugiarazi behar zenean.

Mugen ezarpenak, ordea, Finlandiako neguko larreak erabili ahal izatea debekatu zuen. Sompiora joan zirenak suediarrek bultzatuta joan ziren, baina gero ezin izan ziren emandako tokian bizi. Garai haietan (1914aren inguruan), saamitarrek herritartasun bakarra hautatu behar izan zuten eta, haren arabera, norvegiar, suediar, suomitar edo errusiar bilakatu. Hala eta guztiz ere, Finlandiako guda zibilak (1918an), alde batetik, eta bigarren mundu gerrateak, bestetik, estaturik gabeko herri honen egoera betiko markatu zuten.

— Guda ez zen hemen gerratearekin amaitu!

Finlandia estatuaren eraketa berriak egurgintzari emandako garrantziak zaildu zituen abeltzain haien ibilerak. Suomieraren aldeko hizkuntza politikak ez zuen saamiera era normalizatuan garatzen utzi eta garai bateko saamitar aberats eta duinak pobretze eta desagertze bidean jarri zituen. Aldaketa izugarria, erabat sakabanaturik da goen kulturarentzat.

— Orduan, zerbait baginen; orain, hutsaren hurrena bilakatu gara.

Mugen ezarpenak ez zuen aintzakotzat hartu migrazioarako eskubidea, eta, askotan, mugak ixteak sekulako

galerak ekarri zituen artzain saamitarrentzat. Ondorioz, gero eta iparralderago jo zuten gureek. Gero eta pobrea-  
goak ziren lurretara. Ibilera horretan, txirotuz joan ziren  
gure arbaso ibiltariak.

Tekniken aurrerakuntzak ez zuen asko lagundu beren  
egoera hobetzen. Aitzitik, zenbat eta isolatuago, orduan  
eta ezjakintasun handiagoz begiratzen hasi zitzaizen  
etengabe aldatzen ari zen munduari. Mundu honetatik  
gero eta arrotzago sentitu ziren. Beren eskubide legalak  
galdu egin zituzten, lege zaharrak galtzearekin batera.  
Natura babesteko Parke Nazionalak egin baziren ere,  
saamitarrek ez zuten haietan beren abere taldeak sartzerik.

Karteletan “Abereen sarrera debekaturik” jarri arren,  
praktikan, Saamitarren eta haien artaldean debekua zen  
iragartzen zena.

XX. mendean bertan hasi ziren aspaldiko senitarteko  
hizkuntza zaharra zen saamiera ahanzten eta suomierara,  
norvegierara eta suedierara pasatzen.

Munduan den jatorrizko herri orori gertatu izan  
zaiona gertatzen ari zaio, oraingo honetan, iparraldeko  
saamitarrari. Beren ohiko bizimodua ezabaturik eta as-  
paldiko herri eskubideak ukaturik, zapalduak bezain ezez-  
tatuak ditugu egun. Haien egoera behar beste ezagutaraz-  
terik ez badago ere, antzerako egoerak aurkituko ditugu  
Ameriketako Hegoaldean, Erdialdeko Amerikan bertan,  
Tasmanian edo Australian. Saamitarrek lurra behar dute,  
beren kulturari, beren herri izaerari eusteko. Lurra  
abereentzat, baina, finean, lurra beren erara antolatze-  
ko eskubidea. Lurraldetasuna eta Jabetza. Burujabetza.

“Lur honetatik aske ibiltzeko bermerik gabe ez gara  
aske izango” zioen kantak.

Gure aitonak zioskunez, saamitarrei buruz, saamita-  
rrek hasi beharko lukete idazten saamieraz. Laponiako bi-  
zitza turistei begira egina dagoen modu berean, Laponiako

historia kanpotarrek egina da, modu bitxian. Egun, esaterik badago Suediako hegoaldean aurkitutako ustezko herri bikingoak ere (Härtjedalenen) saamitar herri zaharrak zirela, berez. Gainerako herri indigenen antzera, historia lapurtu digute, oraina ebasteke bidean. Eta hala ebatzi. Hori guztia dela eta hasi zen gure ama zena galdutako saamiera zaharra berreskuratzeke ahaleginetan. Bederik, orduko Joensuun bizi eta Laponiatik urrun bizi. Nahiz senitartekoekin harremanik ia izan ez eta haurdun egon arren.

— Haurrari saamieraz eginen diot...

Horretan jaio nintzen ni. Agian, horregatik saiatu zen gure ama, ia ahazturik, zekien saamiera apurra nirekin erabiltzen. Bere birkontzientziazte kulturalak baldintzatu egin omen zuen gure arteko harremana. Baita trinkotu ere. Nirekin komunikatzeko aukeratu zuen hizkuntzak gure arteko komunitatea azpimarratu zuen.

— Biok saamieraz hitz egiren diagu. Saamitarrak gaituk eta...—, erraten zidan.

Gu ez ginela suomitarrak, ezta kareliarrak ere, argi uzten zidan une oro. Begi bistakoa zena, bestalde. Inguruko guztiak azal zuri leunekoak izan arren, ene itxura gogor belztuak argi adierazten zuen gure jatorri desberdindua. Joensuun, tantakako etorkinez aparte, ez zegoen nire piurakorik.

— Hi, muturbeltza...!

Ohiko diosala nuen. Dena den, hori azaltzeke dago, zeren honako itxura aitaren partetik etor zitekeelakoan nago, baina, horrek bere azalpen zehatza eskatzen duenez eta bideo kamerari hitz eginez akituta nagoenez, utz ditzagun azalpen horiek beste egun baterako.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Familia kontuak direla eta, gogoratuko duan Hazparneko iparrean dagoen Elhuyaberrri baserritik honainoko bidea ez duk kasualitate hutsa izan. Aitzitik, halabeharrez baino areago izan duk behartua. Aitarengandik hasita, baina aitaren arbasoengandik jasotako betebeharrak bati jarraipena emanez.

Aita zena petrikilo baino gehiago zuan. Artayetteko Jaunaren leinukoa, Parisen filosofia ikasi eta Kirurgiako Errege Akademiako sortzailetariko bat izan zuan, hik, gogoan ez izan arren. Ezjakintasunaren kontra borrokatu zuan beti. Arrazoiaren eta Argitasunaren hedapenera zuzendu zitian bere ahalegin guztiak, eta, oraindik ere, agian, ezin izango diagu jakin izan zer nolako punturaino! Zergatik ezen, aitaren borroka zuzena, funtsean, gizarteko erregelkeriaren erakusle nabarmenatarikoaren aurka izan duk: Monarkiaren kontra.

Bai, hastapenetan gordinegia bazirudik ere, gure erakundearen betebeharrak inportanteena monarkiaren aurkako borroka diagu. Bai aitarena, bai eta nirea ere.

Hik ez dakik, Fausto, nirekin urtebeteren aldean besterik ez izan arren, gehienetan hori baino gazteagoaren itxuraz agertu haiz eta. Betidanik eraman behar izan diat ardura guztia neronek bakarrik. Hori dela eta, ez duk jakingo, Bilbora joateko, amarekin Donibane utzi behar

izan genuenean, bertan zegoen Dargain medikua erakundeko kidea zela eta, hura zela medio, Logroñorantz abiatu ginela.

Hantxe egonik sortu zuan lehenengo kontaktua, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearekin. Oker ez banago, nahiz eta aitaren bertako irakasle izendapen ofiziala 1777koa izan, aldeztatik agerian ez egon arren, erakundearen bidez jakinda, Adiskideen Elkartearekin harreman estuak bazituan.

Aipatu erlaziorako, amak ikaragarritzko laguntza eman zioan, osasunez sendo zegoen artean, behinik behin. Gogoratuko duanez, alkoholen tratamendurako sortutako laborategia ama Ursularen deiturapean zegoan (Zubize), eta horrixer esker hasi gintuan gu kimikarekin interesatzen. Amaordea, berriz, honen berririk ez bazuen ere, lagungarri izan zuan, oso alde ezberdinetan. Hik beti esaten hion izeba Dominika, baina, ama ez izanik, eta erakundeko partaidea oraindik izan gaberik, gutxitan aurkitzen den berotasuna eta konfiantza eman ziguan. Zer moduz egongo duk orain? Hilik? Batek zakik.

Oroitzapen onak zekarzkidak Logroñoeko Merkatu kalean zegoen etxeak. Aita, gehienetan familiarekin ez egon arren,

— Lorentza gaixoaz bereziki ez zuan kasik inoiz arduratu—, nirekin egoteko, sarritan aurkitzen zian beta. Berak han utzitako hogeita hamar urteko esperientzia gehiena eskuratzerik izan nian.



2002ko maiatzaren 12an

## NEI, PA VENSTRE SIDEN

Ez, ezkerretara!

Orain, bideoaren bigarren zintaren hasieran gaudela, eta behar bezalako lasaitasuna eta indarra hartu ostean, prest naukazue aitaren aldeko historia kontatzen hasteko. Azaldutakoaren ildotik, neurri handi batean, Norvegiaren historia bera badena.

Aitak ezetza adierazten duela diote psikoanalistek. Aita izendapenarekin batera, abizena ematean, alegia, hura debekua irudia omen da. Legearen azalpen goiztiarrena, nonbait. *"Le nom du père... c'est le non du père..."*, erraten omen zuen Lacan zenak. Gurean, behintzat, halaxe zen, baina Lacanek adierazitako kontrako esanahian.

Nahiz aita jatorriz norvegiarra izan, aspalditik iparraldean finkatutako familia biarnes batetik zetorren. Norvegiak bere independentzia eskuratu aurretik, Bonaparterekin batera aritutako Jean Baptiste Bernadotte militar aristokrata izan zuen arbaso. Norvegiaren historian partea badu gure familiak.

— Zure senitartekoen esku-hartzerik gabe, nekez egongo litzateke egun Norvegia, oraindik suediarrek ginateke eta—, zioen izekoak harrotasunez

Baina aitak horri guztiari ezetza eman zion. Nazionalitatea ere aldatu egin zuen eta fines bihurtu. Jatorri aristokratikoari muzin egin eta komunista bilakatu. Eta aritu. Eta segitu... orain arte.

— Egindako hautuen ostean, nire benetako laguna eta bidaidea herri arrunta dela konturatu naiz -esaten zuen aitak-. Familian antzemandako tentsioak eta gaizki-uleretzeak lasaitasun alaitsuak bihurtu dira niretzat herri xeherean alzoan. Hartan aurkitu dut neronek sendi sendoa.

Gure aita ezetzaren irudia izan bada ere, ez da inoiz semearentzat edo bere mendean egon zitekeen edozeinentzat legearen agerpena izan. Aitzitik, ezetza izan dugu tradizioaren aurrean, pribilegioen kontra eta legearen aurka.

— Abizena Norvegia beharko genuke eduki-, erraten zuen aitaren anaiak txantxetan.

Gogoratu beharra dago, Eskandinavia osoan, Suedia zela potentzia inperiala. Finlandian, Norvegian bezainbeste agintzen zuen suediar inperioak. Eta mendekotasun hura ekonomian eta politikan nabarmena bazen oso, kultura aldetik zer esanik ez. XIX. mendean zehar, autonomia erabili zuten agintari politikoek, aipatu bi lurraldeak lotuta edukitzeko, eta, hala eta guztiz, egoera legal berri harrekin konformatzen ez zirenak bazeuden. Orduko Michelsen eta Steen Jaunak ditugu ezagunenak. Azken hori ezkertiarra bezain nazionalista bazen ere, P. Christian Michelsen izan zen, Norvegia askatasun politikoaren bidean jarriko zuen aitzindaria. Hura 1857an munduratuakoa Bergen hirian bertan jaio zen gure aita izango zen Christian Bernadotte.

— Harrizko etxe batean!

Bergeneko etxe gehienak zurezkoak baitira. Bernadotte familiaren historiak, dena dela, aparteko argibideak eskatzen ditu, Suediako Koroarekin eta Eskandinaviako oligarkiarekin lotuta dagoelako. Guztiagatik ere, Suediako Karlos XIV.a izendatua izen zena Jean Baptiste Bernadotte genuen eta, berarengandik hasita, Suediako erregeak senitarteko berekoak izan dira, nahiz eta, jatorriz,

okzitaniarrak izan. Karlos XIV.a, berez, Bonaparteren armadako militarra zen, Pauen sortua. Lübecken giltzapeturik, berarekin batera, suediarren soldadu gisa zegoen Berner izeneko batekin adiskidetu eta, gerratea bukatzean, Suediara joan zen. Orduan ez zegoen Suedian erregerik, eta bizitzaren halabeharrak Bernardotte huraxe proposatu eta aukeratu zuten.

— Zuregan dago gure geroa—, erraten zidaten.

Ondorioz, Napoleon Bonaparte garaitua izan zenean (1813an), suediar armadarekin sartu zen Parisen. Bi urte geroago, azaldu bezala, Karlos XIV.a izenez, Suediako Konstituzio berriari onarpena eman zion. Orduetik aurrera, okzitaniar leinukoak izan dira Suediako erregeak. Norvegiak bere independentzia eskuratu zuen garaian (1905ean), Suediako Agintari Nagusia Anskar II.a zen, goian aipaturiko Bernardotte haren biloba, hain justu.

Nahiko zahartua zegoen Anskar II.a Erregea. Norvegiak Nazio Askatasunaren bideari ekin zionean, 80 urte bazituen eta kaskartua zegoen. Arazoa Christianian hasi zen (egun, hiriburu bihurturik, Oslo izenez birbataiatu duten hirian). Norvegiako merkatariek bertatik zuzendu nahi zituzten kanpo harreman guztiak, Stockholmen baimenik aldeztu aurretik eduki gabe, burujabetzaz, alegia.

— Geu izango gara geure ordezkariak!, ez gara suediarrez fio!

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen has-tapenetan, ez zen beste tinkaldirik izan bertan. Norvegiarrek norvegiar azaldu nahi zuten munduan eta, horretarako, Kotsulatu Sarea mundu mailan eratu, baina Suediak, betiere, bere agindupean nahi zituen.

Azkenean, 1903. urtearen hasieran, Suediak amore eman zuen eta proposamena Stockholmeko Lege Biltzarrerara eraman zuen. Norvegiak, berriz, bere eskaera Osloko Parlamentu Autonomoan aurkeztu zuen. Aurreikus

zitekeenez, Suediakoak ez zuen onartu proposatutakoa, Christianian bildutako norvegiarrek (lehen esandako Michelsen buru) horren aldeko hautua egiten zuten bitartean.

Gatazka begi bistakoa zen, zeren, suediarren baimenik gabe, norvegiarrek beren kanpo harremanak zuzentzeko gauza zirela argi eta garbi agerrarazi zuten.

— Helduak gara, ez dugu inongo tutoretzaren beharrik...!

Michelsenek berak hauxe irakurri zuen:

— Guk, norvegiarrok, eskubidea dugu, historiak eta Konstituzioak baieztaturik, geure Nazio propioa egiteko.

Osloko Stortingean (Lege Biltzarrean) bildutako hautetsiek, horrekin bat eginik, azkeneraino jarraitzea deliberratu zuten, baina Anskar II.ak ez zituen handik bidalitako ordezkariak onartu nahi izan eta, ezinbestean, Koroaren baimenik gabe, norvegiarrek erabakitakoari ekin zioten. Christianiako Gobernuak bertan behera gelditu zen eta botere politikoa Stortingera pasatu zen. Suediaren batasuna birrinduta utzi zuten.

— Nori berea da legea!

Hala ere, Suediako aginteak ez zuen era goxoan hartu norvegiarren erabakia eta armada bidali zuen Oslo aldera. Mehatxuaren aurrean, Suedia eta Norvegiaren arteko hitzarmena sinatu zen. Hitzartutakoaren arabera, Norwegian horri buruzko erreferenduma egitea, mugako Zaintza Gazteluak erraustea eta, indar militarrik erabili gabe, arazoa Hagako Auzitegira eramatea onartu zuten.

Hori zela-eta egindako erreferendumean, ia 400.000 boz Suediatik bereiztearen alde izan ziren bitartean, 200 boto eskas besterik ez zituen lortu Suediaren aldeko jarrrerak. Diferentzia horren nabarmena ikusita, Suediak Norvegia askatua onartzea erabaki zuen eta Anskar II.ak, Suediako “errege okzitaniar” zaharrak, dimisioa aurkeztu zuen.

— Erregea ezgauza bada, haren mendean daudenak ezin dira gauza handirik izan!

Gure senitarteko batzuk Norvegian geratu ziren eta haiengandik datorkit aitaren emana eta abizena. Bistan denez, familia aristokratiko batean eta Bergenen bertan sortua, gure aitak kultura handia eskuratu ahal izan zuen, lehenengo ikasketatik. Orain Oslo deitzen duten Christiania zena hiri komertziala eta hiriburu politikoa dute Norvegia garaikidean, baina Bergen izan da betidanik hiriburu kulturala eta, esan dudanez, independentziaren sehaska. Hango Unibertsitateak Michelsen Institutuarekin batera lan egiten du. Aipatu Institutua mundu mailako arazo diplomatikoen ikerketetan aitzindaria dugu. Hantxe ikasi zuen gure aitak eta, bide batez, hantxe ezagutu zuen eta zaletu zen komunismoaren ideologiarekin.

— Herriarentzako progresoak zientzia behar du eta zientziaren zeregina herriaren progresoa ziurtatzean datza.

Halako esaldi biribilak maite zituen Anatoli V.a Lunacarskik idatziriko liburu bat zeukan azpimarratz betea. Zientzia gizona izanik, harrigarria zen nazioarteko arazoez arduratuta ikustea, baina ez zuen inoiz zientzia neutrala izan zitekeenik pentsatu. Albert Einsteinen itzalean heziketa (fisikaria baitzen bera ere), nazismoaren sarraskiak, alde batetik, eta iparramerikarren leherketa nuklearren ondorioek, bestetik, eragin zuten berarengan zientziari buruzko erantzukizun etiko zein politikoaz kezkatzeko. Berak Upsalan egin zituen unibertsitateko oinarrizko urteak eta jatorrizko Bergenen burutu batxilergoa. Ez zen hori oso arraroa izaten, hala ere, Eskandinavian elkar ulertzeko arazorik ez baitago. Erran nahi baita, inolako “elebitasunik gabe”, norvegiar batek ez duela, behintzat, suediera ikasi beharrik, zerbait ulertzeko, elkarren arteko ulermena badagoelako. Horretaz gain, Suediako Bernardotte familia bazegoen Upsalan eta, prestigiozko unibertsitatea zenez, haraxe jo zuen gure aitak, ikasketarako.

— Zientzia Upsalan elikatzen da...

Hori zela-eta aurkitu nuen nik aitormen grabatu honetarako funtsezkoa izan den idazkia: Elhuyar anaien gutuna. Baina, horretaz aritzeko, izango dugu betarik.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Nolanahi ere, familiaren oroitzapenak astindu eta gero, hobe nitek zenbait gako azaltzea, esan behar diadana taxuz ulertzeko, pixka bat lasaitzeko eta ikasketetan bizitutaakoaz behar bezala jabetzeko. Horrela, hik heuk izandako biziera hurbiletik, adierazi nahi diadanaz errazago jabetuko haizelakoan nagok. Horretarako, Paris, Freiberg edo Bergarako Errege Mintegian gertatutako pasadizo batzuk gogoratu behar izango ditiagu.

Errege Mintegia, funtsean, erakundeak zituen egitasmoen ondorio diagu. Adiskideen elkarte bera ere bai, baina, ikusiko duanez, neurri desberdinean.

Hasieran, Jesusen konpainia erbesteratzeak, inoren mende utzitako jauregia eskuratzeak ahalbidetu zian premiazko zuen ikastetxea antolatzea. Horretarako, erakundeak berak orain arte argitu gabeko Jesuiten atzerriratzearen esku-hartze zuzena eduki behar izan zian, noski. Era berean, beste zenbait proiektu ere gauzatu zirelakoan nagok, baina ez diat horretaz informazio zuzenik.

Errege Mintegian bertan eraikitako kimikako eta metalurgiako laborategi garestiaz, beraz, edo Entziklopedia irakurtzeko baimen bereziaz, hainbat alditan sumatutakoa argitzera noak. Hala ere, berriro diosat, ez pentsa erraza denik. Orain adierazi behar diadanari arreta handia jarri, beraz.

Tratamendu berezia merezi ahal izateko, Errege Mintegiak erregearekin ezkutuko hitzarmena lortu zian, Adiskideen Elkartearen bidez. Horrela, gudako espioitzaz, armadarako ikerketa sekretuaz, bai eta Gaztelaren alde atzerriko kontaktuak lortzeaz eta erabiltzeaz ere itaundu genian. Horren arabera, Errege Mintegiak ezkutuko lana egiteko baimena zian. Inor gutxik zakian, ordea –erregeak gutxiago, noski–, erakundearen bitarteko ezkutuko lan hori guztia monarkiaren kontra erabilia izango zenik.

Hori jakinda, besteak beste, Karlos III.ak Mintegiari metalurgiako laborategirako urtean eta, esaten den bezala, musu-truk emandako 39.000 ogerlekoen afera hasiko haiz ulertzen. Modu bertsuan gogoratu herorrek Parisen zein Freibergen egindako erosketa garesti guztiak ia ezer esan gabe ordaindu zirela. Alatxa kondearen harridurako, zeren, bera administraria izan arren, ez baitzuen horren berririk. Halaz guztiz, Alatxarekin izandako eztabaidek, zentzuzkoak baziren ere, ez zigutean ezer onik ekarri, bera zer-bait susmatzen hasia zelako.

Bazakiat duela hiru urte Thunborg irakaslea Bergarako laborategian izan zela, bai eta guztiz txundituta geratu ere. Neronek Suedian izandakoan kontrakoa esan arren, gure Bergarako tailerra Upsalakoa baino lau aldiz handiagoa zela konturatu zuan agurea, eta askoz hobeto horniturik zegoela, gainera. Nik, ez nioan horretaz ezer azaldu nahi izan, ezer susma ez zezan, baina –gauzak nola diren!– orain bera Bergaran, neu erbestean nagoen bitartean, hasita egongo duk, agian, zertxobait antzematzen.

Errege Mintegia eta, zehazkiago, laborategia bera, erregeak kontrakoa uste arren, erregearen beraren kontrako gure armarik preziatuena zuan. Bertan, Soraluzeko kofradiekin batera, eta altzairuzko aleazio berriak erabiliz, arma mota guztien hobekuntza lortzen ari gintuan.

Erregeak, berak ezer jakin gabe, bere buruaren aurkako borroka zeramaan, beraz. Horregatik, bere ustezko



kontrola ziurtatzeko, “Monte Hermoso” markesaren haserreaz gainera, gure kidea zen Narros markesa izendatu zian laborategiko arduradun gisa. Era berean, duela gutxi baieztatu zidaten bezala, hemendik aurrera militarrek zein armadako marinelek Mintegian ikasiko diate eta, are gehiago, Mintegian ikasi dutenek armadan, ofizial gisa, sarrera zuzena edukiko ditek. Iraun zirauk iraganak. Horrekin batera, gogoratuko duanez, unibertsitaterako sarrera trabarik gabea dugun neurrian, eta kontuan izanik ikasleen artean Frantziako edo Suitzako (monarkiarik gabeko estatuak, bada) lagunak badaudela eta egoten direla, monarkiaren aurkako jarduna ziurtaturik egon duk. Horrela, erregeen kontra aritzeko gure proiektua –hitzez “Erregeen”– izan den mintegiaren garrantziaz jadanik jabeturik egongo haizela uste diat.

2002ko maiatzaren 13an

## RIKSMAL ALA LANDSMAL

Euskara batua ala euskalkiak. Horrela ulertuko duzue euskaldunok Norvegian planteaturiko dilema.

Lehen adierazi bezala, Norvegiak askapen politikoa lortu arren, ez zuen hizkuntza askapenik berehala eskuratzetik izan. Aspalditik norvegiarren erabilera sustatzen eta bultzatzen ibili zen Henrik Wegeland izeneko hizkuntzalariak hizkuntzaren deskolonizazioari ekin nahi izan zion, danieratik bereizten zena azpimarratuz. Akuilatze hartatik sortu ziren riksmal-a (norvegiara jantzia edo osatua) eta landsmal-a (herriko norvegiara). Hizkuntza askapena askapen nazionalarekin batera uztartuz joan zenean, Ivar Aasen zenak apailatu zuen nolabaiteko “norvegiara batua” (nynorsk-a), baina, independentzia politikoa lortu arren, ez zen hizkuntza aldaera hura inoiz nagusitu. Oraingo honetan, bokmaj-a, “hizkera kutsatua” dugu eskolako norvegiara, nahiz eta Aasenen egitasmoaren oinarria zen nynorsk-a oraindik herri txikietan oso erabilia izan. Egun, hizkuntzaren bi aldaerak dira onartuak bezain ofizialak eta biak erabiltzen dira, nynorsk-a, erabileraren aldetik behintzat, pittinka jaitsiz joan arren.

— Danimarkan bezala hitz egiten ditek hemen—, komentatzen dute zahar egoskorrek beren fiordoetatik Oslora doazenean.

Gure aitak ez zuen herri aldaera hori maite. Zentzu handirik gabeko herrikokeriak goratzea zela uste zuen, eta, bokmaj-aren aldeko jarrerarekin, aurretik riksmal-aren

zaleek egiten zuten bezala, danieraren norvegiearekiko kutsadura bultzatzearen joera hura ez zuen aintzakotzat hartzen. Suomiera batzeko erabilitako prozedura nahiago zuen aitak. Merkatalgoa, salerosia fite da egin. Ordea, handik harat, salduz gero, gelditzen da sekulakotz saldua, saldu; eta bai erosia sekulakotz erosia, erosi. Buruan ere kolpe bat ematen dizutenean, kolpea fite da egin; ordea, sendatzen nekez eta luzaro. Eta gero ere, sendatuz gero ere, gelditzen da komunzki seinalea, gelditzen da marka. Izan ere, suomiera askoz okerrago zegoen XX. mendearen hasieran, baina hizkuntza politika zorrotz baten poderioz, oso denbora laburrean, haren egoera behar bezala zuzentzea lortu zuten.

“Suomiera dugu Finlandiako berezko hizkuntza”, esaten da Helsinkitik Ina aintzira bitartean, ofizialki berderen, estatu elebiduna izan arren.

Egun, suomiera da nagusi Finlandian, nahiz eta, historiaren herentziaz, errusiera zein suediera izan kultur hizkuntzak, modernitatearen hastapenetan. Finlandian ez ziren, Norvegian ez bezala, hizkuntza batuaren bidean zalantzatan ibili. Aitzitik, bertan zirauten gainerako mintzaira eta hizkeren orde (suomieraren aldaera ugari baitzegoen), suomiera batua ezarri zuten, inolako biguntasunik gabe. Era gogor eta zorrotzean. Gure aitak, zientzialari komunista gisa, nahi zuen eran.

— Egia matematikaren arabera ulertu beharra dago. Bi gehi bi lau baldin badira, hor ez dago ñabardurarik. Finlandiako benetako hizkuntza suomiera baldin bada, suomieraz hitz egin dezagun toki guztietan berdintsu eta tokian tokiko inongo ñabardurarik gabe.

Fisikaren metaforak askotan erabili izan dira gizartearen osagaiak, barne harremanak, joerak edo ikerketak argitzeko. Gehienetan, ordea, zientziaz eratorritako erreferentzia haiek mekanikoegiak izan dira. Gizakiok ez

gara zatiki fisikoak, eta beti badago, gizartearen ikerketetan, hautu ulergaitzaren eraginen bat, ikuspegi mekaniko hutsak nekez azal dezakeena. Hau da, Termodinamikaren II. Legea (entropiarena) oso erreferentziagarria izan da historialarien artean, kulturek degradaziorako duten joera azaltzeko. Horrela, gizarteen beheraldiak ulergarriago egiten dituztela uste izan arren, ez dute gauza handirik argitzen, nire aburuz.

— Gizartea ezin da logikaren legeen bidez ulertu eta, beraz, are gutxiago eragin-, esaten nion neure buruari aitak uste zuenaren aurka.

Antzekoa gertatzen da soziologoek egin ohi duten Maxwellen teoriaren erabilera kaskarrak. Hura erabiliz, gizarteak bere egitura iraunarazteko zenbait erakunde, estatua eta hezkuntza barne, etengabe erabiltzen dituela esplikatu nahi izaten dute mekanikoki. Horrela, gizakioi dagokigun askatasuna galdu egiten da, fisika hutsetik gizarte azterketara bortxaz ekarritako metaforetan. Eguraldiari buruz ari da klimatologiaz ezer jakin gabe. Era berean erabili ohi da zientzia gizarteaz aritzeko, inolako funtsik barik, alegia.

Aitak oso maite zuen Elhuyartarren garaiko Charles Fourierren (1772-1837) pentsaera. Izan ere, hartan biltzen ziren utopia eta zientzia, literatura eta politika. Fourierren gizarte proposamenak, bitxiak bezain xebreak izan arren, ez ziren guztiz arrazoirik gabekoak. Marx eta Engels ere Fourier zaleak izan ziren, zeren, Hegelen bidetik, Fourierrek gizartea berrantolatu eta hobetu nahi izan zuen, bere izkribuen bidez. Horrela, unibertso bakarraren ordeztu, Fourier-ek biunibertsoa eta hirunibertsoa asmatu zituen –kosmologia oso bat, alegia–, non gizabanako bakoitzaren bizitza gertakizun matematiko baten ondorio zuzena litzatekeen. Gizakia konbinatoriaren ekoizpena izango genuke soilik. Bizidunen arteko erakarpena edo

gorrotoa emandako serie konbinatuen ondorio litzateke, eta giza taldeen erabakiak ere haien arabera ulertuko genituzke. Fourierren itzala nabarmena izan zen Victor Hugoren; haren kontrako iritzia, aldiz, begi bistakoa izan zen Baudelairengan. Fourierrengan, umorea eta proposamena, idazkia eta zenbakia, mitoa eta eraldaketaren aldeko jarrera batu egiten dira, gure aitarengan bezala.

— Lehenengo surrealista Fourier izan zen.

Gure aita fisikaria da, ordea. Zientzietako gizona, funtsean. Eta, gainera, komunista porrokatua. Beraz, gizartean aldaketarako legeak aztertu izan dituenen, determinista izan dugu beti. Baita kultura eta hizkuntza arazoetan ere.

— Ñabardurak ez du balio. Politika zehatza behar dugu, baita hizkuntzaz aritzerakoan ere...

Horregatik uste zuen berak bere herrian riksmal-aren aldeko hautua egin beharra zegoela, ezinbestean. Egia esanda, landsmal-aren aldekoa egin zezakeen era berean (beno, agian ez horrenbeste...), baina ez zen haren adimen kartesianoan kabitzen bi hizkuntza estandarrak era berean onargarriak izan zitezkeenik.

— Ba al dago erabiltzerik zenbatzeko sistema arabiarra eta erromatarra batera? ¡Ez, jaun-andreok! Dena nahastu nahi ez bada behintzat. Ezinbestean, hautatu beharra dago oinarrizko zeinuak aukeratzeko. Hauta dezagun estandar bat edo bestea, baina biak erabili nahi izateak porrota besterik ez digu ekarriko...

Nynorsk-aren hautua ez zuen garbi ikusten, haren hizkuntza moldeak atzerakoiegiak zirelako, bere ustean. Arrantzale eta nekazarien mintzairak izanik haren aldaeraren oinarria, ezin erran mendeetan zehar administrazio publikoan zein ikastetxeetan erabilitako riksmal-arekin alderatzerik zegoenik. Beraz, praktikoena eta eraginkorrena bokmaj-a baldin bazen, horixe hobesten zuen gure aitak.

Finlandiaren egoerarekin, oster, suomiera batuaren alde lerratu zen, nahiz eta Joensuu bertaratu zenean suedieraz bakarrik mintzatzen iritsi.

— Herriaren hizkuntza nahi dut erabili, suediera ofiziala izan arren.

Aitak Suediako Upsalako Unibertsitatean ikasi zuen fisika eta, Joensuun jakintza arlo horretako lan eskaintza zabaldu zenean, haraxe joatea erabaki zuen. Unibertsitatea, Finlandia osoa bezala, elebiduna zen, suedieraz eta suomieraz, azken hau, urteen poderioz, gero eta nagusiago izan arren. Gure aita papergintzako arloekin lotuta zeuden unibertsitateko ikerketa lerroetan hasi zen lanean.

— Garapen jasagarria ahalezko aukera dugu. Behar bezalako ekarpen zientifikoa eginez, industriak denentzako onura besterik ez du ekarriko.

Finlandia osoa, agidanean, baso handia baita. Arbola gehienak urkiak dira eta nonahi sortzen eta hazten dira. Gizasemeek, berriz, moztu eta, lakuz laku, paper lantegietara eramaten dituzte, beren beharrerako. Garai batean, Finlandiako ekoizpenik handiena horixe zen, baina, egun, gainbehera doan sektorea dugu. Oraingo honetan, kirol arropen (Karhu) eta komunikabiderako teknologia berriek (Nokia) hartu dute langileria gehiena. Papergintza, aldiz, berrantolaketa bidean dago eta, horretarako, beharrezkoa den ikerkuntza lantzen aritu zen aita Unibertsitatean.

Harrigarria da horrekin guztiarekin suomierak eduki duen garapena, garaipena hobeto esanda. Eta horrek gure aitaren bilakaeran eta, bide batez, nire heziketa motan eragin handia eduki izan zuenez, behar bezala azaltzea merezi duela uste dut. Dena den, horretaz aritzeko, behar besteko lasaitasuna behar dut eta, gaur bezalako udaberriko egun eguzkitsuan, ez naiz gauza jarraitzeko. Hurrengoan, bada, azalduko dizuet.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Laborategiko ikerketen bidez ezagututako aurkikuntzak bezain garrantzitsuak izan daitezke ezagutarazi ez direnak; erakundearen lanerako gorde direnak. Baina horretaz zerbait badakik, heuk lagundu baikaituk, behin baino gehiagotan, erditzeaz zeuden zenbait esperimentu “gerorako” gordetzen. Nolanahi ere, orain azaltzen diadan honek alde aurretik erakutsitako hamaika portaera ulergaitz argituko diala pentsatzen diat.

Ez gaituk, ordea, horretara mugatuko. Hau ezin duk ulertu Euskal Herriko Adiskideen Elkarte den horren alde ezkutua agerian utzi gabe. Horixe bera izango duk jarraian egingo dudana.

Atenasko greziar zaharrek Elena askatu zuten bezala, Mendebaldeko monarkikoek bahitutako greziar kultura arrazionala askatzea zuan, eta duk, gure helburua. Herri demokrazia berreskuratzea, hiritarren agora indarrean ezartzea berriro ere. Horretarako, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte erabili izan diagu. Beste edozein elkarte erabiliko genukeen bezala, ez gehiago, ez gutxiago.

Erabilera hori, ordea, guztiz bitxia izan duk. Izan ere, hala erregeak nola haren azken aholkulariak ere kontrakoa uste zuten, berek zerabiltela elkarte, alegia.

Errege Mintegiaren istorioa jadanik, eta azalean besterik ez bada ere, adierazita baldin badago, erakundearen

lana behar adina ulertarazteko, ezinbestekoa duk Elkar-teari buruz zenbait gauza argitzea. Besterik gabe, gogora erakarri behar izango dituk aspaldiko ezagun batzuk; besteak beste, Chaveneau, Proust edo Borgekin egindako kontaktuak, kasu.

Halaz guztiz, badakianez, L. Proust ekartzeko, Felipe II.aren garaitik indarrean zegoen Elizaren lege zahar baten aurka jo behar izan genian. Erreforma protestantearen kontra sortutako legediak zioskunez, atzerritarren kontratazio guztiek baimen erlijioso berezia behar ziaten. Prousten kasuan, hori ez zuan errespetatu. Elkar-teak irakasle gisa kontratatu zian, baina bere benetako lana Arandako kondearen mendean egotea izan zuan. Hark egindako ikerketei esker, Gaztelako armadak aurrerapen handiak izan zitian haiek zirela eta, haren bizitzari buruzko zenbait pasarte estali egin zituan, Inkisizioaren aurrean. Elkar-tearen bidez, esaterako, Segoviako Artilleriako Akademian irakasle egon eta bolbora berria lortu zian. Modu berean, potasio nitratoa eskuratzeko sistema hobea erdie-tsi zian gure kidea zen Munarrizekin batera.

Antzekoa izan zuan Chaveneauarena. Elkar-tearen bidez, erregeak, “Ofizio Santuko” peskizaz at, kontratatzea izan zian eta, gainera, Bergaran bertan, platinoa isolatzeko aurkitutako metodo berriaz jabetzea ere izan zian. Horren arabera, Ameriketako mineralaren ezpurutasuna, Perutik ekarriarena batik bat, era berriz tratatzea posible izan zuan. Ondorioz, kolonietatik ateratako etekinak lau aldiz biderkatu zituan eta erregeak Elkar-tearekiko zuen mirespena eta tratamendu berezia areagotuz joan zuan.

Hasieran harreman guztia Grimaldiren bidez bazen ere, denboraren poderioz, erregearekin zuzenean burutu zuan. Horregatik, gure Elkar-teak eta gero sortutako gaine-rako guztiek bestelako estatutuak eduki ditiztek, Matri-tense denaren antzerakoak, baina gurea berezia izan duk,



sorreratik gaur arte. Pentsa ezak, 1760an, Elkartearen errekonozimendu publikoa lantzen hasi zenean, oso elkarte gutxik zuela erregearekiko harreman zuzenik. Oker ez bano, Hizkuntzarena (1714koa dena), Medikuntzarena (1734), Historiarena (1738koa), Done Fernando Arte Ederretakoa (1744) eta ildo bereko Bartzelonakoa (1751) zein Sevillakoa (1752), baina denak letra arlokoak. Geurea izan zuan Zientzietako Errege Elkarte lehena, baita, errandako moduan, bakarra ere, zeren hurrengo guztiak beste ereduetakoa izango baitziren.

Adiskideen Elkartepean zeuden Eibar bailarako lantegietan, Gaztelako armadak behar zuen guztia ekoizten zian. Hori publikoki gutxitan azaldu arren (Batzar Nagusietako 1771 eta 1794 aktetan agertzen duk, baina garrantzi handirik gabe), erregearen eta Elkartearen arteko konfiantza eta loturaren berri ematen ziguk.

Erregeak, Elkartean esku-hartze eta kontrol zuzena zuela uste zian. Horregatik, ekonomia mailan Euskal Herriko Adiskideek aholkaturiko arrantza sistema berriak edo nekazaritzaren birmoldaketa onartzeaz gain, politikoki zein militarki erabili zian, edo gutxienez horixe uste zian.

2002ko maiatzaren 15ean

## MITA KUULUU?

—“Zer moduz?”

Horixe errepikatzen nabil egun guztian eta egun guztietan, euskaldunon artean, hurrekin batik bat. Hau da, adeitasunez, baina, era berean, hurbiltasunez, giza konplimenduz egiten den galdera erretorikoa. Ez du ia erantzunik behar, ezin esan galdera ere badenik, baina harremanetarako balio du. Nik, behintzat, era arruntean eta toki gehienetan, asko erabiltzen dut.

— Zer moduz?

Suomieraz, esanahi bertsukoa den sarrerako esaldia, orde, ez zuten, mendeetan zehar, modu berean erabili Suomi osoan. Suomiera batuaren historia luzea baita oso.

Suomiera ez da hizkuntza indoeuroparra, euskara ez den bezala, nonbait. Dena dela, zuen hizkuntza indoeuroparrak baino lehenagokoa bada ere, gurea indoeuroparren garaikoa da. Ahaide gertuenak Ural Mendietan omen ditu, baina geografikoki hurbilenak estoniera, kareliera eta saamiera bera dira. Hizkuntza fino-ugriar direnak, alegia. Multzo horretan orotara hemezortzi hizkuntza desberdin bizi badira ere, aipaturiko hirurak dira gehien interesatzen zaizkigunak, gure kontakizun honetarako.

— Zer moduz?

Dudarik gabe, suomiera gailendu zaie, honezkero, karelierari eta saamierari, estatuaren jabe egin eta normalkuntza politika ezarri ahal izan duelako. Antzera ger-

tatzen da estonierarekin. Tallinetik zuzendutako hizkuntz erabilerak ekarri du, ondorioz, estonieraren osasun ona, nahiz eta urteetan errusieraren mende bizi behar izan duen. Gainerako beste hizkuntza fino-ugriarrekin izandako banaketak oso aspaldikoak dira, agian bost mila urtekoak. Egitura gramatikalak antzekoak izanda ere, elkarren artean ezin erran ulertzeko modurik dagoenik. Praktikan, ez dira antzekoak hamabost miloi hungariarrek hitz egiten dute hizkuntza eta ia bost milioi suomitarrek hitz egiten dutena.

— Hala moduz!

Erdi Arotik, suomitarra aski isolaturik bizi izan den herria da. Kanpoko gizarteekin harreman gutxi izan zuten, XI. mendetik hona kristauak izan arren, XVI. mendera arte mendebaldea katolikoa eta ekialdea ortodoxoa. Kultur hizkuntzak suediera eta errusiera izan dira, azken hau aski nagusitua, ekialdeko Karelian. Dena den, suomitarrek elebakarrak izan dira ia beti; areago, estatuarekiko harremanak, auzitegieta, adibidez, suomieraz egiten ziren, nahiz eta kanpokoen mendean egon. Eliza katolikoak suomiera erabili izan du, Tabastiakoa (Hämekoa) eta Biborgekoa (Viipurikoa). Botere politikoa kanpotarren eskuetan egonda ere, herriak betiko bizitzan segitzen zuen. Bixia da, Erdi Aroan, Suomin ez omen zela feudalismorik izan eta gizakiak libreki borrokatzen zirela kanpoko erasoen aurrean, Lalli ezaguna bezala, 1156ko urtarrilean Endrike ingelesa Köyliöko laku izoztuaren gainean hil zuena.

— Bertan gera dadila konkistatzera etorritakoa!

XVI. mendearen erdialdean, Gustaf Vasa Suediako erregeak erreforma luteranoaren aldeko hautua egin eta eliza katolikoaren jabegoa konfiskatu zuen. Protestantismoarekin batera, Europako gainerako hizkuntzak bezala, suomierazko literatura hasi zen zabaltzen. Lehenengo hitzak orduko alemanerazko bidai liburu batean daude

gordeta: “*Mjynna tachtton ernast spuho somen gelen Emjyna dajda*” (Nik gogoz nahi dut suomieraz hitz egin, baina ezin dut). Garai hartakoak dira lehenengo testuak suomieraz, “alfabetoa” (ABC-kiria, 1543) eta “Testamentu Berria” (Se Wsi Testamenti, 1548). Euskararen historia dirudi. Paraleloa, erabat. Badarik ere, Nafarroako Erresuma protestantea zen orduan eta B. Etxeparek kaleratutako *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) nahiz Joanes Leizarragak argitaraturiko Testamentu Berria (1571) haren garaikideak dira... Azken honek, Albretoko Joana Erreginari dedikatu ostean, honela azaltzen zion, sarrera gisa, “Heuskalduney” idatzitako Testamentu Berriaren aintzinsolasean: “...batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere mincatzeco maneran cer differentiá eta diuersitatea den”... Gure euskarazko irakasleak honi buruz hitz egiten zigunean, suomieraren historia zetorkidan burura beti.

— Erljioaren, hezkuntzaren eta hizkuntzen historiak historia paraleloak dira...

XVI. mendean, Jaakko Ilkka, nekazarien buruzagia, matxinatu egin zen, Suediak bidalitako gobernadorearen aurka. Hil egin zuten (1587an), baina haren azken hitzak erromantizismo nazionalaren akuilu gisa geratu ziren historiarako: “*Ei oikeutta maassa saa ken itse sit`ei hanki, ken vaivojansa vaikertaa on vaivojensa vanki*”, hau da, “ez baldin badugu guk geuk justizia geure esku hartzen, ez dugu inoiz ezer lortuko... bere saminez kezkatzen dena sufri-menduaren gatibu da”. Suomieraren kondairak ezin izan ditu hitz hauek ahantzi, eta ahoz aho helarazi dizkigu.

— Ez baldin badugu guk geuk justizia geure esku hartzen, ez dugu inoiz ezer lortuko...

XVII. mendean, hiru unibertitate nagusi zeuden, Upsalako Suedian (nola ez!), Abokoa Suomin eta Tartuko Estonian. Aboko Akademiak izugarritzko garrantzia

izan zuen suomieraren bizitzan, XIX. mendera arte. Ez zen inoiz suomieraren aldekoa izan, latinaren eta suedieraren aldekoa baizik, baina Europarekiko loturak erraztu zituen, eta XIX. mendeko erromantizismo nazionalaren mugimendua errotzeko baliagarri gertatu zen.

— Herrien arima hizkuntza da...

Euskal Herrian bezala, ahozkotasuna izan da nagusi suomierazko kultur ekoizpenetan. Literatura idatzia eta erlijioso hartu beharrean, Lönnrot antropologoak bildutako Kalevalan (ahozko kondairan) oinarritu zen suomiera batuaren eraikuntza. “Herriaren hizkuntza herriak daramabilen ahozko hizkuntza bizia da”, zioten orduko hizkuntzalari erromantikoeak, eta halaxe egin zuten estandar berria egituratzean.

Gustaf III.a izan genuen Errusiaren aurkako gerra piztu nahi izan zuena, bere mendeko armada finlandiarra erabaki horrekin bat etorri ez bazen ere. Gerratea gaizki joan zenez, Anjala hirian bildu ziren soldaduek (1790ean) erregearen kontra jo zuten, eta, bide batez, Finlandia Suediatik aldentzen ahalegindu ziren. Denak akabatuak izan ziren eta saiakera hura ez zen gauzatu. Suediak gerra galdu eta Finlandia Errusiaren menpean geratu zen. Mende bat geroago, eta Napoleoni esker, Errusiako Enperadoreak (Alexander I.ak) autonomia zabala eman zien suomitarrei, eta, ehun urtetan zehar, independentzia garairako beharko zituzketen erakunde guztiak sortuz joan ziren suomitarrak, hizkuntza borroka barne.

— Ez gara suediarrek, errusiarrek ere ez; beraz, suomitarrak behar dugu izan.

Garai hartantxe omen zeuden Elhuyar anaiak Upsalako unibertsitatean, Gustavium laborategian ikertzaile. Aitaren bidez eskuratu nuen izkribua ordukoa da. Bestalde, mende bat geroago, antzekoa jaulki omen zuen Sabino Aranak, euskaldunen abertzaletasuna era moderno

eta politikoan fundatu zuen aitzindariak. Beregainki, nahiz eta 1882az geroztik ibili mota horretako baieztapen baten bila, 1892an idatzi zuen modu garden eta osatuan, “Bizkaia por su independencia” liburuan. Hurrengo urtekoa izan zen “Bizkaitarra” aldizkaria, eta 1895ekoa Euzko Alderdi Jeltzalearen sorrera, baina hori guztia geroago ikasi nuen, ez Euskal Herrian, ordea, Finlandian bertan baizik, euskal hizkuntzan eta kulturaren murgiltzen hasi nintzenean. Beraz, azken horren azalpena gerorako utziko dugu, eta nire jaioterriaren historiara itzuliko gara, ahal dela, aski ezezagunak bezain garrantzitsuak diren pasarteak behar bezala azaltzeko.

Eta behar bezala diot, zeren, historia kontuetan, kasu gehiegi egiten zaie, nire aburuz behintzat, armada gatazkei eta errege-erreginek egiten dutenari, eta gutxiegi, berriz, herri bizitzari eta kultura liskarrei. Gurean, ordea, ezin dira azken hauek erraz alboratu.

Ezin da ahaztu Göran Magnus Sprengtporten militar buruzagia Finlandiaren independentzia zalea zela, ez eta lehen esan dugun Anajalako konplotaren atzean zegoela, baina gorakada nazionalistak salbatu zuen suomiera eta ez borroka militarrik, hizkuntza izan baitzen, finean, erresistentziaren arrazoiak: Paneslavismoaren aurka, edo, beste hitz batzuetan erranda, errusiar nazionalismoz mozorrotzen zen hautu linguistiko zein kulturalaren kontrako herri erresistentzia. Horrela, errusieraren erasoari aurre egiteko, hain zuzen, joan zen ebazten suomiera batuaren hizkuntza arazoak, bere aldeko gizarte jarrera trinkotzen eta bere eskubide juridikoak argitzen. Ehun urteko garaia da hura (1830etik 1940ra). Hala ere, badaude, denbora luzean iraun zuen prozesu horretan, mugarri batzuk. Haietariko funtsezkoenak gogoratzearen, honako hauek ekarriko nituzke hona.

XIX. mendearan hasieran, diglosia zen nagusi. Nahiz eta suediera hizkuntza ofizial bakarra izan, Elizak

suomiera, bere aldaera desberdinetan, erabili behar izaten zuen, herriarengana bere mezua helarazteko, 1809an autonomia politiko hasi zenean.

Mendearen erdian, (agindua 1851koa izanda, 1856tik aurrera hasi zen indarrean jartzen) funtzionario autonomoek suomiera jakin behar zuten, herriarekin hitz egiteko; ez idazteko, ordea.

Pixka bat geroago (1863an) etorri zen hizkuntza legea. Suedierak hizkuntza ofizial bakarra izaten segitu arren, hogeitaz urteko epea ireki zen, hizkuntzen berdintasuna bermatzeko, suedieraren eta suomieraren artean, Finlandian. 1883an, hizkuntza banaketa gauzatu zen eta, suedierazko probintzietan suediera ofiziala geratu bazen ere, azkenik eta gero, suomierazkoetan suomiera ofizialtasunera iritsi zen, harik eta 1917an, Finlandiaren independentziarekin, bi hizkuntzen arteko erabateko simetria onartuta geratu arte.

— Hizkuntzen erabileraz zehatz-mehatzeko simetria ezinezkoa da.

Legezko berdintasuna behintzat bermaturik geratu zen. Ez da kasualitatea, Sobiet Batasunaren garaipenarekin batera, Finlandiak burujabetasuna lortu ahal izana. Ordura arte, Errusiar Inperioaren probintzia autonomia izanik, Lenin sobieten buruzagiaren gordelekua izan zen eta, Moskuko Gobernu eskuratzean, ez zuen aurreko mesedea ahaztu. Leninek, gainera, oso erabilera pragmatikoa eraman izan zuen beti nazionalismoarekin. Bere ustean, adibidez, Poloniako edo Finlandiako abertzaletasunak iraultzaileak bide ziren, tsarismoaren aurkakoak ziren neurri berean, eta ez besterik. Hau da, komunismoaren ugazaita burutsuarentzat, nazionalismoaren ekarpena ez zegoen herri eta kulturen askapen mugimenduetan, haien abagunezko jarrera politikoetan baizik. Horregatik, nonbait, aholkatu zion Armada Gorriko zalduneriari Polonian

ez sartzeko; arrazoiz, zeren Iraultzan zaildutako zaldunek hantxe pairatu baitzuten beren hondamenik handiena, zeharo suntsituak izan baitziren. Baina ez gara hemen, komunismoa eta iraultza aitzakia, Lenini buruz mintzatzen ari, Finlandiari buruz baizik. Barka, beraz, haria galtzea. Gatozen, beraz.

Errusiar Iraultzarekin independentzia lortu arren, 1922an gauzatu zuten finlandiarrek beren benetako burujabetza, Sobiet Batasunaren itzalpetik irtenda. Urte berean argitaratu zen lehenengo hizkuntza legea. 1947tik aurrera, Suomi osoro suomitarrik geratu zela esan liteke. Hau da, mendeetan zehar gutxitua izandako hizkuntzak normaltasuna eskuratu zuen.

Azken borroka ez ziren errusiarren eta suomitarren artean, suedierazko eta suomierazko hiztunen artean baizik. Liskar haietan, hastapenetik bukaerara bitartean, nazionalista suomitarren artean ere, banaketa handia jazo zen; ohi bezala, “zahar moderatuen” eta “gazte erradikalen” artekoa, hain justu.

— Suomiera da suomitarren hizkuntza!

— Suediera, nazioarteko hizkuntza jasoaz izateaz gain, Finlandian bizi diren suediar jatorrizkoen hizkuntza ere bada!

Hitzarmen nazionala burutu nahi zuten politikari nazionalista zaharrek.

Zaharrek hizkuntza arloan aukera kontserbadorea eduki bazuten ere, gazteek, aldiz, suomierazko estatua egin nahi izan zuten. Zorionez, errusiarren paneslavismoa eta suomieraren aurkako jarrerak areagotuz joan zirenean, XX. mendearen hasieran, suomierazko eskolatzea aski errotua zegoen herrian eta herri hizkerak jarraitu ahal izan zuten.

Independentzia lortu eta gero, erradikalenek suedieraren erabilera desagerrarazi nahi izan zuten zeharo. Elkarrizketa luze eta korapilatsuen ondorioz, egun dagoen



egoera legala lortu zen Legebiltzarrean: suomiera eta suediera, biak hizkuntza nazionalak dira baina estatuaren administrazio osoak elebiduna behar duela izan. Saamierak, hirugarren hizkuntza nazionalak, berriz, ez zuen, dena dela, ofizialtasunik lortu... eta horretan gaude.

Estatuaren administrazioa bi hizkuntzetan bermatzen da, pertsona bakoitzaren elebakartasunaren eskubidea ziurtatu ahal izateko... saamitarrentzat izan ezik.

— Saamitarrak ez dira finesak, norvegiar edo suediar badirelako.

Horixe zen egoera, gure amak maisutzako ikasketak burutu zituen garaian. Horixe da oraingo egoera.

Joensuura joan zenean, lana zela medio, gure ama zena ez zen horretaz guztiaz jabetzen. Iparraldekoa zela bazekien, hark beste hizkuntza desberdin baten arrastoak (arraildurak!) bere baitan eraman arren, ez zion horri beste munduko garrantzirik eman. Joensuun helduen alfabetatzearen arloan hasi zen lanean. Kanpotar asko eta bertako batzuk zituen bezero. Gehienak eskolatu gabeak eta kultura maila baxukoak. Haiekiko harremanetan aurkitu zuen bere burua, ordea, eta, bide batez, gure aita.

— Zergatik nahi duzu hizkuntza hau ikasi?

Horrela hasten zuen bere jarduna. Hau istorio polita dugu, patxadaz azaldu beharrekoa, eta, arestian agertu dugun historia handiarekin lotura badu ere, bere txikitasunean, arreta berezia merezi du. Horregatik, nahiz eta oraindik bideo zintarako denbora eduki, honetan utziko dut oraingoz, beste batean honetaz taxuz aritzeko beta aurkitu bitartean.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Sekretupean egindako ikerketa batean, Elkarteak espainiarren mendeko Ameriketako armaden makaltasuna eta lurraz barrango mugen ahultasuna frogatu zian. Horrexegatik sortu zuan, 1778ko otsailean, merkatu askea sortzeko agindu famatua. Arrazoi berberegatik, hain zuzen, estatuaren mugak eta haien zergak itsasaldera pasatzea deliberatu zuan. Dena den, egindako azterketaren arabera, ekonomikoki zein militarki, erregea hori erabakitzena behartua zegoan ezinbestean. Elkarteak hori bera aholkatu zian eta, geroxeago, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, defenditu egin zian. “Kontraforua” izan arren, erregea pozik zegoan.

Ordea, berak inolaz ere jakiterik izan ez zuena hauxe zuan: Handik aurrera, erregearen beraren kontrako mugimendua hedatzen hasiko zela eta, haren autoritatea, pirtinka besterik ez bazen ere, Inperio osoan gutxituz joango zela. Politikoki, inoiz ez hobeto esanda, erregeari xakea emana genioan. Geuk proposatutakoa, bere alde zelakoan, sinetsi eta betearazi. Gu haren alde atera eta berak agindutakoa publikoki defenditu eta, finean, bere buruaren kontra zuzen-zuzenean jotzen zuen portaera segitzera behartu. Hura ongi atera zitzaiguan eta, dagoeneko, horixe azpimarratzen zigutek hik Mexikon antzeman dituan Gaztelako boterearen aurka astintzen ari omen diren haizeek.

2002ko maiatzaren 27an.

## UM OLHAR SOBRE EDUCAÇÃO E CULTURA

Izugarrizko eguzkiak jotzen du. Hego haize epela. Mota honetako eguraldia maite dugu, urtean zehar, eguerdiko eguzkirik gabe bizitzen ohitu garenok. Hemengo ez da tropikoa, ezta hegoaldea ere, baina, gu bezalako eskandinaviarrontzat, honek beste mundu bat dirudi. Oraindik gogoan dut, nire euskara bereziagatik edo, Donostian Iparraldekoa ote nintzen galdetzen zidatena.

— Iparraldekoa izango haiz hi...?

Nik, harriturik, ezin nuen ulertu zein erraz antzematzen zen. Eskandinavian, adibidez, txikia eta beltzarana izanik, inork ez luke esango bertakoa nintzenik, eta Euskal Herrian, euskaraz hitz eginda ere, iparraldekoa nintzela sumatzen zuten. Ezinezkoa zirudien. Badakizue, beltz guziak ez dira ikatza, ezta zuri guziak irina ere. Gero, berriz, konturatu nintzen, ikasitako Axularren eraginez, Ipar Euskal Herrikoa nintzela uste omen zuela jendeak, ez Ipar Poloaren ondokoa.

— Beste aldekoa haugu ala?

Bon, beti ikasten da zerbait. Nabala berria beti zorrotz. Neronek, behintzat, Axularren testuen gaineratik eman nituen euskarazko lehenengo urratsak. Horrela, hitz arkaikoak eskuratu nituen, garaikideak bailiran, gramatikako egiturak ere lapurtera klasikokoak ziren nireak eta “abar eta abar”, hau da, anafora funtziorako ez nuen “bera” erabiltzen, bihurkariak ez nituen bereizten... Dena nuen

Ipar Euskal Herriko hizkera, fonetika izan ezik. Ebakeran, egia erranda, nahiko ahoskera neutroa eduki izan dut betidanik, edo, zerbait izatekotan, gipuzkeratik oso hurbila. Hala non, Joensuuko papergintza lantegietara etorrira, ezagutu nituen lehenengo euskaldunak Tolosa eta Hernani aldekoak ziren. Haiengandik jasotako doinuak baldintzatu zituen nire geroko ikasketak eta, adierazi dudan bezala, Ipar Euskal Herriko euskalkien soinua, beraz, ez zen antzematen ene eleetan. Baina horretaz geroago mintzatzea hobe.

— Ahiturik nago!

Horixe esan nezakeen, eta, nekatuta ez erabiltzeagatik, euskalki arraro bateko hiztuntzat hartuko ninduketen.

Gure amak ere ikasi behar izan zuen, edo, hobekiago azalduta, berreskuratu behar izan zuen aspaldi galdutako hizkuntza, eta Paulo Freire pedagogo brasildarraren ikasbideak hartu zituen, helduen alfabetatzean sakondu ahal izateko, hartan suomiera erabili behar izan arren saamieraren lekuan. Ez omen zuen ikasketa eta burutazio haien atzean, hala ere, inolako hautu ideologikorik. Aitzitik, Freirerengana elizaren bidez heldu zen. Suitzako Genevan, Elizen Munduko Kontseiluak argitaratutako liburuen artean aurkitu zuen berak Freirerena, “Hezkuntza eta Kultur Ekintza”, hirurogeita hamarreko hamarkadan argitaratutakoa, alegia.

— Liburu hark eragin zidana ezin da beste ezerekin alderatu.

— Ez da hainbesterainokoa izanen...

Gure amak ematen zituen eskoletan, mota guztietako pertsonaiak biltzen ziren, bera bezalako saami galduak, Ipar Kareliatik etorritako errusiar nazionalitateko kareliarrak, Baltikoko Errepubliketako iheslariak, mota guztietako etorkinak eta abar. Haien artean azaldu zen aita. Suomieraz ikasi baino gehiago, bere burua alfabetatu behar zuelako.

— Herriaren hizkuntza nahi dut behar bezala ezagutu eta erabili.

— Ez nizun sinetsi, halako handiuste itxura zenuen...

— Nik? Bai zera!

Eskandinaviako hizkuntza gehien artean elebitasunaren beharrik ez dagoenez, (suediarrak berea egin dezake eta norvegiarrak zein daniarrak eragozpenik gabe ulertuko dio...), aitak, Suediako Upsalan ikasi arren, ez zuen suedierazko alfabetatzerik eskuratzeko premiarik izan. Joensuun, ordea, desberdina izan zen, suomiera bera desberdina baitzen.

— Langileriak zerabilena nahi nuen niretzat. Ez zegoen handiusterik.

Amak ez zituen eskolak era gramatikal hutsean ematen. Ikasleak ez ziren haurrak, historia eta kultura desberdinetako helduak baizik. Haiek ezagutzen saiatzen zen bera, eta, hori zela medio, bere kultura, bere herriaren historia eta aspalditik ahazturiko hizkuntza berrezagutu ahal izan zituen.

— Etorkinei suomiera erakusten ibiltzerik egokitu izan ez balitz, ezin izango nuen neure aspaldiko saamiera maitea behar bezala inoiz berreskuratu. Freireri zor diot hau ere...

Eta aitak, berriz, bekozko ilunez, Freire hura mulato zoragarri bat izan behar zela pentsatzen bide zuen, saamitar eta suomitar emakumeek amesten duten gizon bero eder bat...

— Entzun: “Ez dago benetako elkarrizketarik, subjektuengan pentsamendu kritikorik ez badago... baina, pentsamendu kritikorako, oinarrizkoena errealitatearen eraldaketa da”.

— Behingoagatik, bat nator Freirerekin.

Hastapena, hala ere, Paulo Freirek berak Afrikako nazioen askapenenaren aldeko borrokan aritutako Mario

Cabral buruzagi independentistari bidalitako gutun batean gogoratzen zuen: “Atzerritar hizkuntza nazio hizkuntza gisa ikasteak ez du zentzurik... beren nazio hizkuntzaren erabilera izan da, ostera, herri txikiak erresistentziarako izan duten aukera bakarra”.

Honako esaldi honek, Marcel Prousten amonaren madalena bailitzan, berpiztu zuen gure amarengan bere nazio zanpatuaren hizkuntzarekiko zaletasuna. Konturatu gabe hasi zen oroitzen bere herriko apaizak erabiltzen zuen hizkuntza dotore eta jasoaz, Inari Lakuaren inguruan bere aitaren adiskideek zerabilten hizkera aberatsaz, bere ama-izekoek elkarri trukaturiko hitz goxoak... dena azaldu zitzaion oroimenean, Proust zenari amonaren etxeko usain eta bizitzaren memoria ireki zitzaion modu berean. Amaren kasuan, saamieraren hotsak zekarzkion oroimena, ez suomierarenak.

— Non dago aitona...?

Ama oso erlijiosoa izan zen, txikitan. Herrian zegoen apaiza saamitarra zen eta, Jainkoarekin hitz egiteko, hizkuntza ilun eta jaso erabiltzen bazekien; era berean, bazekien, jakin, herriko hizkeraz mintzatzen, jende xehearekin aritu behar izaten zuenean.

— Bakea zurekin...

Apaiza hil zenean, ordea, etorritako berriak suomiera besterik ez zuen ahoskatzen. Misterioa zen saamieraz ba ote zekien, ez baitzen oso hitzuna suomieraz ere, baina, eliza hustuz joan zen, eta orobat saamieraren erabilera bera jaisten sinestunen artean. Beharbada, hortxe hasi zen gure amaren erdalduntze bidea.

— Ene barne mintzoa hasi zen suomieraz mintzatzen...

Biziera hauexek zirela eta hasi zen gero ama bere alfabetatze metodoa garatzen, alfabetatzerako bere ikasleek zituzten oroimenean eta jakintzen gainean. Emaizak abe-

ratsak izan ziren oso. Jakina da Freirek helduen alfabetatzerako egindako proposamen kontzientziatzaileak izugarrizko eraginkortasuna izan zuela. Adibidez, 1962an, Brasilgo ipar ekialdean, hogeita bost milioi biztanletatik, hamabost milioi analfabetoak ziren. Metodo horri segituz, Angicos hirian, (Rio Grande do Norte deituriko barrutian), hirurehun langile alfabetatu zituzten, berrogeita bost egunetan. Bi urte geroago, esperientzia hartan oinarritutako planean, mota horretako hogeita mila “kulturgune alfabetatzaile” ezartzea aurreikusi zen, urte batean bi milioi ikasle inguru hezteko gaitasunarekin... Zoritxarrez, plan haiek pikutara joan ziren, eta Freirek berak erbestera bidea hartu behar izan zuen. Dena den, haren esperientzia praktikoak eta hartatik sortutako teoriak amaren alfabetatzearen plangintza zeharo kutsatu zuen, eta, ondorioz, Freireren “metodo dialogikoa”, hau da, elkarrizketetan oinarritutakoa bihurtu zen, Joensuun, alfabetatzearen eskolako ardatz. Horrek etengabeko kontzientziazioa piztu zuen amarengan. Hasieran, kontzientzia linguistikoa hartu zuen: saamierarekiko zaletasun soila. Gero, kontzientzia nazionala aurkitu zuen: ez zuen gehiago bere burua finlandiartzat jo, saamitartzat baizik. Azkenik, iraultzaile ere bihurtu zen, txikitatik ikasitako erlijioari muzin eginda. Orduantxe aurkitu zuen bere ikaslea zen gure aita.

— Zuk eta biok mundu berdina amesten dugu.

Freirek zioen: “Kontzientziatzea, historian gizakiaren jarrera kritikoa bezala, ez da inoiz bukatuko. Beraz, jarrera kritiko iraunkor horrek eragin zion amari, eta, hortik aurrera, ezin izan zen lasai geratu. Horrexegatik hil zitzaizgun, beharbada.

— Ez dut astirik, baina horri erantzuteko beta aurkituko dugu- izaten zen haren ohiko jarrera eta orduko esaldirik erabiliena.

Honakoa kontatzen zuen:

— Egun batez, galdegin zioten Alexandro Handiari ea nolatan erdietsi eta irabazi zuen hainbat garaipen, hainbat on eta ondasun, hainbat hiri eta erresuma, eta ihardetsi omen zuen laburki: *Nihil procrastinanas*. Ez deus luzatuz, ez deus biharamuneko utziz. Ez zuela egundaino egunean egin ahal zezan gauzarik biharamuneko utzi, ez zela egundaino gerokoan fidatu, eta halatan irabazi handiak egin zituela.

Gure aita Joensuuko Unibertsitatera etorri zen, fisikako eta kimikako ikerketa baten bidez, eta bertan geratzea deliberatu zuen. Upsalan egindako ikasketetan, papergintzako ekoizpenetan sakondu zituen bere ezagutzak.

— Garapenak aberastasuna dakar, baina ez da izan behar munduaren txikizioa dakarren garapen gaiztoa.

Norvegiako Bergenen jaio arren, ez zuen itsasoa maite. Egia erranda, ez zuen Bergen maite, bere senitarteko gertuenak hantxe bizi zirelako eta gureak haiekin aspaldi hautsi zituelako harremanak. Haiek aristokrata hutsak ziren. Gainera, Norvegiako giro soziala eta kulturala aski kontserbadorea eta purista zenez, aitak bere ezinegon familiarra eta ondoez soziala han ezin izan zuen baretu.

— Hau ez duk nire benetako etxea. Hemen ez zegok gure familia. Hau ez diat nik nahi nukeen herria.

Gaztetasunaren arrangurak eta kezkak asetzeko, beste toki bat bilatu behar zuen. Horregatik hautatu zuen, Suediako unibertsitateen artean, klasikoena zen Upsala, ikasketak burutzeko. Alde batetik, horrekin, Norvegia uzten zuelako. Bestetik, zientziak ikastearekin batera, bere senitartekoek onar zezaketen prestigiozko unibertsitate hoberena hautatzen zuen horrela. Upsalan ikasle zelarik aurkitu zuen, Gustavium deituriko laborategi zaharrean, Joan Joxe Elhuyarrek Fausto anaiari bidalitako eskutitza.

— Zer dituk paper zahar hauek, zer hizkuntza arraio duk hau?...



Lehen aipatu bezala, euskaraz idatzita zegoen, artean aitak zer nolako hizkuntza zen ez zekiela, eta, izkribu zaharrak izanik, ia irakurgaitzak ziren.

— Ez zakiat zergatik, botatzeko zeuden paper hauek ekarri nitian noizbait, to...

Urte batzuk geroago, Joensuun euskaraz ikasten hasi nintzela, eskutitzak zer zioen jakin genuen. Zer garrantzitsua zen bertan agertzen zena, ordea, gero konturatu nintzen, Euskal Herriratu ondoren, hain zuzen... Baina, hori dela eta, aurrerantzean kontatzerik izanen dugu. Itzul gaitezen, bada, Joensuura eta gure amaren heriotzara.

Erran moduan, ama, kontzientzia soziala eta aitarekiko harremanak finkatu zituenetik aurrera, benetako gizarte-eragile bihurtu zitzaigun. Ez zegoen astegunik, ez eta astebururik ere aisialdirako gure etxean. Bazegoen beti zer edo zer egiteko.

— Saiatuko gaituk azaltzen... Egingo diagu nola edo hala—, horrelakoa zen garai hartako gure familiaren hitz jarioa.

Alfabetatzearen aldeko kanpaina egitea etorkinen artean, Zientziaren historiari buruz aitak emandako hedapen ikastaroetara joan beharra, Udaletxearen aurrean protestatzea lur espekulazioa salatzeke, paperaren industriak eragiten zuen txikizioaren aurrean jarkitzea... betiere zerbait egiteko genuen, senitartekook bilduta edo kalean egoteko.

Halakoetan, ez zen arraroa izaten bertako unibertsiteteetan ikasten edo papergintzan lanean zebiltzan euskaldunon laguntasuna gure ondoan edukitzea. Gurea lurraren aldeko aldarrikapena zen. Agian, uraren aldeko behar genuke erran, zeren Finlandia osoan, eta Karelian batik bat, ia ur gehiago baitago lurra baino. Gurean dauden laku guztiak ez dira naturalak edo berezkoak, nahiz eta asko halakoak izan. Zeudenek eta daudenek sekulako

sarea ehuntzen dute, lurralde osoa zeharkatzen. Kasik esan daiteke iparraldetik Helsinkiraino irits daitekeela, oinez ibili beharrik gabe. Ubide haiek erabili ohi dira eta, zoritxarrez, erabiltzen dira oraindik ere, moztutako egurra paper lantegietara garraiatzeko, gaitzeko txikizioa eginez, bide batez. Zaharrak ez zeuden gozo.

—Lurrak ezin dik hau guztia irentsi.

Behin batean, honen aurka agertzea, naturaren erabilerera bortitza salatzea, alegia, deliberatu genuen Joensuuko auzoetako elkartean bildutakook. Guretzat, beste ekintza bat izan behar zen hura benetako egitate, zorigaitzeko gertakizun bihurtu zen. Hau da, egun hartan gertatutakoak markatu zuen geroa. Halako ekintzan herioak hartu baitzuen ama.

Ama txikia, beltz xamarra eta isila zen oso. Ez zen inoiz nabarmentzen. Ondoan egonda ere, ez zenion erraz erreparatuko. Baina borondate handikoa zen. Txikitatik, bazekien inguru latz batean bizirauten. Horrela ikasi zuen eta horrela irakatsi zigun. Bere heriotza izan zen utzi zigun azken ikasgaia.

Egun arrunta zen guretzat, jai izan arren. Joensuu ondoko lakua nonahitik enborrez ari zen betetzen. Gure ekintza, papergintzak eragiten zuen mota guztietako kutsadura salatu nahian, lakuan sartzea eta enborren aurrean jartzea zen, uretan. Horrela hasi ginen aintziran sartzan, eguerdi aldean. Enbor garraiolariak, Euskal Herrian ezagutuak izan diren “almadiero” suertekoek, arbolak guregandik desbideratuko zituztela uste arren, ez zen horrelakorik gertatu. Aitzitik, aurrean egongo ez bagina bezala aritu ziren lasai asko, tragedia gauzatu arte. Orduan, beranduegi izan zen, eta urduri jartzeak ez zuen laguntzen. Gure ama harrapatuta bezain zanpatuta geratu zenean, ez zegoen atzera jotzerik. Hasieran jai ekintza zena drama bihurtu zitzaigun. Amaren hilketa.

— Madarikatuooook!

Herri osoa hunkituta gelditu bazen ere, etxean izugarriko kolpea hartu genuela ez dago erran beharrik. Amak ez zuen toki handirik behar gure ondoan bizirik, baina hiltzean utzitako hutsunean murgildu ginen aita eta biok, ia jalgi ezin izateraino. Bera bizirik zegoela, denon artean banatzen genituen etxeko lanak. Ni horrela hezi ninduten, eta gure aitak horrela hautatu zuen. Nor bere gelaz arduratzeaz gain, etxeko beharrak banaturik genituen. Erosketak amak egiten bazituen ere, otorduak aitak prestatzen zituen. Arropa garbiketa nire kontua izan zen txikitatik. Jasotzea, garbigailuan sartzea, ateratzea, zabaltzea, sailkatzea eta banatzea nire eginbeharrak ziren. Gure herrian eguzkiak bolada luzeetan jotzen ez duenez, etxeko sauna erabiltzen da, gehienetan, zeregin horietarako. Ez da lan makala, baina, ohituz gero, ez da pisutsua izaten. Ama hil ondoren, berriz, ez nuen indarrik aurkitzen zeregin haietarako. Arrasto berean, aitak jana prestatzeko ohitura galdu zuen. Ez zen erraz antzematen, baina, pittin-pittinka, aldatzeko arroparik ez genuela jabetuz joan ginen. Armairuak hustuz joan ziren, eta ordezeko arropa garbirik ez genuen prestatzen. Utzi genion etxean bazkaltzeari eta afaltzeari... egia erranda, ez zegoen etxean egoterik. Etxeko lanak karga bihurtu ziren, eta etxean egotea pisutsu. Horixe izan zen ni hona etortzeko funtsezko arrazoia. Ezin bainuen bertan bizitzen segitu. Zulo heze hartatik irten beharra nuen. Hasieran esandakoaren arabera, Erasmus Europako programaz baliatu nintzen, eta Euskal Herrira etortzeko hautua hartu nuen.

Aita, berriz, Unibertsitatea utzita, amaren hutsunea alfabetatze eskolan betetzen saiatu izan da geroztik. Ikasle bezala suomiera eskuratzen, behar bezala idazten eta irakurtzen hasi behar izan bazuen ere, egun, irakasle dugu, amak utzitako arrasto beretik. Ez du diru askorik lortzen,

ikerketaren bidez unibertsitatean erdiesten zuenarekin alderaturik behinik behin, baina ez du asko behar. Niri, behintzat, ezin dit ezer bidali, bere ohiko eskutitzetatik aparte.

“Zer moduz, seme? Etxean ezer asko ez bada ere, iraun egiten diagu; beraz, premiarik izanez gero, nirekin gogoratu, eskatu eta saiatuko nauk, neure neurri motzean, laguntzen...”

Niretzat idatzitako gutunak, nonbait, ezinbesteko bihurtu zaizkio, honezkero. Herrian ez dago ondo ikusia. Kanpotarra izateaz gain, ez du bere komunismo zaletasuna inoiz ere ezkutatu eta, errusiarrekin muga egiten duen Joensuun, komunismoa etsaiaren sinonimoa izan da, duela gutxi arte. Horrezaz gain, amaren heriotzak utzitako lorratzean, gorroto handia hedatu da herrian, eta aita erdian harrapatua du. Ez da, beraz, egoera gozoa harena, baina argi du han geratu behar duela. Nik ez, ordea. Horrexegatik egin nuen alde.

— Elkartuko garelakoan, adiorik ez, aita...

Hau kontatzen ari naizela, nahiz bakarrik egon eta historia jakina izan niretzat, hatsik gabe gelditzen ari naizela iruditzen zait. Kanpoan eguraldia aldatu eta sargoriarekin euria hasia du. Gaurkoz, honetan utziko dut hitz jarioa. Izanen ahal da hoberik...

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Hala ere, gauza guztiak ez dituk ondo atera eta, horregatik, hemen nagok, erdi preso, erdi pertsegiturik. Hori dela eta kontatu diat aparte batean ni kondenatu nauen istorioa. Hona hemen jarraian.

Duela hamahiru urte (zoritxarreko zenbakia hori) argitaratutako “Análisis químico del wolfram y examen de un nuevo metal que entra en su composición” txostenak nire bizitza goibeldu dik. Hauxe izan duk ene bizi guztiaren gakoa eta, era berean, ene heriotza ulergarri egingo duena. Beste edozer baino lehenago, sekretua izan den hau azaldu egin nahi diat, hik heuk ere erakundearen alde erabiltzeko.

Bere garaian Suediara bidalia izateak ez zian suposatzen ez meritu berezirik, ez inolako zorionik. Beste hautagai batzuk egon arren, neu izan ninduan aukeratua. Finean, agian noizean behin sumatzerik izan duan bezala, bertako altzairu aleazio berezia asmatzea nian helburu. Kainoi hobeak egitea, Erresuma Batuaren aurkako borroka hastear zegoelakoan. Bidaia erregeak ordaindu zian, eta nire kontaktu zuzena Kastejon bera zuan, Armada Ministroa. Ikerketa zientifikoaren kontu hura, beraz, itxura besterik ez zuan.

Orain arte azaldutakoak gehiegi harrituko ez hinduelakoan nagok. Ezkutuan egin arren, ingurukoak zerbaitez konturatuko zirela uste diat, eta heu, jakina, are gehiago.

Hurrengo aitormena, erabat berria izango duk hiretzat: Kanoiak egiteko sistema hartaz jabetzea lortu nian. Hau duk, sekretupean, orain arte ezkutatzen ibili naizena. Horren arrazoiak segidan agertuko dizkiat, baina segi dezagun orain hariari tiraka, noranzko zentzua galdu aurretik.

Itzultzerakoan, bada, eta Kastejongo Gonzalez markesaren aurrean, miatutako txostena aurkeztu behar izan nian. Zerbait egin beharra zegoan, eta Bergman irakaslearekin jasotako apunteak erabili nitian. Bertan adierazten zuan suedieraz tungsten deritzan mearengatik azaldutako jakin-mina. Horrelaxe plazaratu zuan “Harri pisuaren” afera. Gainera, Falungo kobre meategietan, Carl Wilhem Scheelen bidez eskuratutako prozedurak lagun, hik eta biok lortu genian Bergaran wolfram isolatzea.

Baina hori ez zuan nahikoa izan Gaztelako Armadaren buruzagiarentzat. Deitu zidaan eta Simancas ondoko herrixka batera joan behar izan nian. Berak ez zian sinesten Suedian armadarentzat ezer lortu ez nuenik. Gainera, mamu ilun gisa, Erresuma Batuaren aurkako gudaren posibilitateak kopeta iluntzen zioan... epe motza eman zidaan bere aburuz, –“erabat seguru”–, nik kanoien fabrikaziorako prozedura egokiari buruz hartutako informazioa bere esku utz nezan. Ez nian egin, jakina. Ondorioz, hemen nagok, erbestean; eta, okerrena, neure bizitza ere ezin diat ziurtatu.

2002ko ekainaren 16an

## IT IS WORTH STATING AT THIS POINT THAT...

Hona iritsita, honakoa adierazi behar dut: bideo zinta hauek guztiak, era berean, aitormena eta hori fundatzeko beharrezkoa den dokumentua ere badira.

— Erraten dudan guztia nire kontra erabil daitekeela jakin arren, ez dut mutu geratzeko asmorik.

Lehendik azaldu dudan gisan, aitak Upsalako unibertsitatean ikasle zela eskuratutako izkribu zahar eta ulertezin batzuk hartu zituen, laborategia birmoldatzen ari zirela. Geroago, euskara ikasten ari nintzelarik, errandako izkribuak euskaraz zeudela konturatu nintzen, eta transkripzio lanari ekin nion. Gutun luze bat berridatzi nuen, jatorrizko idazkera ia irakurgaitza baitzen. Joan Joxe Elhuyarrekoak bere anaiari hil aurretik idatzitako pasarteak ziren. Historia ezagutu ondoren, ezin argigarriagoak. Haietan, kimikako osagarrien taula eratzeko guztiz garrantzitsua zen wolframaren aurkikuntzaren berri ematen da. Inondik inora ere ez, pentsa zitekeenaren kontra, zientzia hutsaren arabera uler daitekeen gertaera. Balio handiko dokumentazioa, Euskal Herrian batik bat. Harrigarria da, dena den, Elhuyarren abizena zer ezezaguna den orokorki. Gaztelerazko liburugintzan, esate baterako Salvat Entziklopedian adibidez, Elhuyartarrak ez dira agertu ere egiten. Etsenplu gehiago eman nitzakeen, baina ez du merezi.

Aitak zuen izkribuan, Joan Joxe Elhuyarrek bere anaia Faustori adierazten zion, wolframa isolatzeaz gain, kanoiak hobetzeko altzairu aleazioa ere lortu zuela, Erresuma

Batuaren aurkako gerratea hasi aitzinean, Gaztelako Armadari esan zionaren kontrakoa, alegia. Errandako armadak ordaindu zituen Elhuyarren ikasketak eta ikerketak, haien lorpenak militarri erabili ahal izateko. Baina Joan Joxek erdietsitakoa ez zion helarazi, monarkiaren aurka aritzen zen erakunde ezezagun baten esku utzi zuelako, bera bertako partaide izanik. Horregatik hil omen zuten Bogotan, berrogeita bi urte zituela, Gaztelako Armadaren aginduz ziur aski, ezer frogatzerik izan ez bada ere.

Euskal Herriratu nintzenean, neurekin ekarri nuen gutuna. Hasieran, ez nuen saltzeko asmorik. Badarik ere, haren benetako balioaz ez nintzen artean jabetzen. Gero, aldiz, kontuan hartu nuen mota haietako gauzek zenbat balio duten.

Historiak sekulako datu eta informazio ulergaitzak ematen dizkigu askotan. Adibide ezagun bihurtu zaizkigu, esate baterako, Abraham Lincoln eta John F. Kennedyren arteko aldiberekotasunak edo bat etortze liluragarriak:

Lincoln 1846an hautatua izan zen Kongresurako.

Kennedy 1946an izan zen aukeratua Kongresurako.

Lincoln 1860tik aurrera izan zen Presidente.

Kennedy 1960tik izan zen Presidente.

Biok giza eskubideen alde lan egin zuten.

Biok beren haurrak galdu zituzten, Etxe Zurian zeudelarik.

Biok ostiralez hil zituzten.

Biok buruan tiroa emanda.

Lincolnen idazkariak Kennedy abizena zuen.

Kennedyren idazkariak Lincoln zuen deitura.

Hegoaldekoak izan ziren bion hiltzaileak.

Hegoaldekoak izan ziren bion ordezkioak.

Biok deitura berekoak: Johnson.

Lincolnen ordezkioa, Andrew Johnson, 1808an jaio zen.



Kennedyren ordezkoa, Lindon Johnson, 1908an jaioa.

Lincolnen hiltzailea, J. W. Booth, 1839an jaio zen.

Kennedyren hiltzailea, L. H. Oswald, 1939 jaioa.

Hiltzaile bakoitzaren izena 15 letrak osatzen dute.

Ford izeneko antzerki batean hil zuten Lincoln.

Lincoln izeneko Ford markako auto batean hil zuten Kennedy.

Booth eta Oswald epaiketara joan aurretik hil zituzten.

Hil baino aste bat lehenago:

Lincoln Monroe-n, Mariland-en egon zen.

Kennedy Marilyn Monroe-kin egon zen.

Ez zen Elhuyarren historia mota honetako istorioa, baina datuak, goikoen antzera, deblauki horren estu lotzeak, erakargarria izateaz gain, bere balioa zuelakoan nengoen. Beraz, Joan Joxek bidalitakoak bere salneurria merezi zuen.

Orduan, gainera, orain bezala, bestalde, ez nuen diru askorik eta, orain ez bezala, ezin nuen aitaren itzalean bizitza egiten segitu. Jasangaitza zen niretzat.

Erasmus programaren bidez jasotzen dugun laguntza huskeria da. Apenas hirurogeita hamabost euro hilean. Harrigarria bada ere, Europatik etortzeak, edo Europara joateak, askoz sari gutxiago merezi omen du, nonbait, espainiar estatuko beste unibertsitatearen batean geratzeak baino, zeren espainiar estatu barreneko laguntza programarekin unibertsitatez aldatzen den ikasleak ia hirurehun euro kobratzeko aukera du hil bakoitzeko. Ia hamar aldiz gehiago estatutik kanpora doanak baino, bada. Horrela izaten da eta horrela sufritu behar izan dut nik.

Diru beharrak bultzatuta, nire Zientziaren Filosofiako irakaslea zen Xalba Dudagoitiarekin gutunaren aferari

buruz hitz egitera (*Hala duk, Xalba!... eta hemendik aurrera adituko duan guztia, jakin ezak egia hutsa dela...*).

Berebiziko konfiantza hartu nuen Xalbarekin (*ez lotsatu, gizona!*). Bizkaitarra izanik, euskara mordoiloa zuela uste zuen.

Ba, hamabosti pein, Santixo egunien, hango etzalde baten, biximodu biko etzie, anajiek siesan, gure aman lengusiñe bat egon san han, eskondute, gero suñe pe medikuek eta siesan eta, selan da?...

Bere herriko hizkeraz akonplexatua eta batua behar bezala erabiltzen jakin gabe, Xalba ez zen inola irakasle harroxko, aski apala eta hurbila baizik (*benetan...*). Harreman handia egin genuen. Biok ginen bakartiak –jakina denez, zuhurrak ele guti–, baina bioi gustatzen zitzaigun neurri gabe edatea, galtzak ere salduko genituzke zurrutaren truke, naturak eman ez zigun lasai hitz egiteko ziurtasuna eskuratu arte bederen. Gehiegitan ez, baina inoiz edo, elkartzen ginen, geure zaletasun premiazkoa zen egarria elkarrekin asetzeko. Halako batean, kontatu nion gutunarena. Ez zidan ezer erran, baina, beste egun batean, berriz, gaia mahaigaineratu zuen.

— Horri bidea eman behar jako.

Nekiena adierazteaz gain, gutunaren fotokopiak ere utzi nizkion. Harrituta geratu zen eta, irakasle ordezkoa izanik, bere sailburuarekin hitz egitea gomendatu zidan.

Xalbak ez zuen postu finkorik unibertsitatean. Ustez ETAk mehatxaturiko baten ordezkapena ari zen betetzen. Besteak, bizkartzain eta guzti, eskolarik ez eman arren, unibertsitatera joaten segitzen zuen eta, bide batez, sailburutzaz arduratzen omen zen.

— Hemen dauden erantzukizunak alboraezinak dira...

Betebehar haien artean ez omen zegoen, nonbait, eskola ematearena.

Harengana jotzea zen egokiena, Xalbaren ustez, bera ez baitzen inor sailean, ez unibertsitatean. Xalbaren konplexu guztiak ezagutu arren, adierazitako hau, behintzat, bete-betean sinetsi nion eta “benetako” irakaslearekin hitzordua eskatu nuen.

Ez dut orain haren izenik gogoratuko; izana azaltzea nahikoa eta sobera izango da, memelo hutsa zelako. Ateko bizkartzainen begi zorrotzak gainditu ostean, eta berarekin hitz egiteko bulegoan sartu orduko, ez zidan mintzatzeko aukerarik eman, bere egoera ustez tamalgarriaz baizik ez baitzen aritu.

— Diktadurapean bizi gara!

Egotatra galanta. Adierazi nionean Elhuyar anaien arteko gutuna eta harengatik ondoriozta zitekeena, ez zuen hura ikusteko inolako gogorik azaldu. Bere aburuz, Euskal Herrian zegoen pertsonen arteko jazarpen terrorista-nazionalista ezabatu arte, ezin omen zen ezertxo ere egin, ez eta zientziaren historiarik...!

— Bizitzeko eskubideak dena baldintzatzen du. Mehatxuak dauden bitartean zientziaren historia egin nahi izatea kolaborazionismoa da!

Madrilgo Consejo Superior de Investigaciones Científicas-en zuen bere lagunarengana jotzea gomendatu zidan, Euskal Herri “hipernazionalista” honetan ez baitzegoen nituen dokumentuak behar bezala ikertzerik.

Bukatu ondoren, Xalbarekin baxoerdi batzuk edatera bildu nintzenez, ez zen harritu. Sailburuaren izaera eza gutzen zuen neurrian, bera etsita zegoen.

— Ez dogu aukerarik. Itzi paketan istorioa.

Egia esanda, sailburua edonor izaten zelarik ere, etsita, seguru asko, Xalba. Horregatik maite nuen. Adiskide onekin, orenak labur. Bakartia bezain bizia izanik, bestean premia baitzuen bere motzean. Ni, bestalde, Xalba bezalakoa nintzen, baina ez nuen inola ere horrelakoa izan nahi (*Ez mindu, arren...*).

Bere hizkuntz konplexua, automespretxu ilun hura arindu nahian, Eskandinaviako hizkuntza estandarren historiak kontatzen nizkion.

— Norvegian bi estandar dauzkate ofizialduak, eta suomiera batua, adibidez, ahozkotasuna dela medio hasi ziren batzen, hau da, herri hizkerak aintzakotzat hartuz...

Nire euskara berea baino jasoagoa zela esaten zuen askotan. Pentsa, bera herri euskaldun batean sortua eta hezia izan arren, txikitatik ikasitako hizkera naturala gutxiesten zuen, neronek Axularrengandik eta Euskaltzaindiak agindutako arauetatik modu artifizialean ikasitakoaren aldean. Harrigarria, gero!

Behin, nonbait, bere garaian azaldu nion norvegiera batuaren historiak galdetzeko ausartu zen Euskal Irakasleen Ikastaro batean, baina Ibon Sarasola euskaltzainak herri norvegiera batua Ivar Aasen hizkuntzalariak asmatutako sasi hizkuntza besterik ez zela ihardetsi zion gaine-rako guztien aurrean.

— Horrek ez du hemen batere balio... Gainera, norvegiera herritarra Aasenen buruan baizik ezin da aurkitu...

Xalba hain lotsaturik geratu zen, ezen ez baitzuen ezer gehiago galdetzeko adorerik ukan. Nik, berriz, ezetz nioen. Gauza bera erran zitekeela euskara batuaz; alegia, zeinen burutik sortu zen?, errealitatean ba ote zegoen euskara baturik, ala batasunak literarioa behar zuen izan soilik? Beraz, bere hizkera benetako euskara zela erraten nion... Baina hark ez zuen guztiz sinesten. Batuaren alde zegoen eta, era berean, etxeko hizkuntzaz damu zen lotsatia.

— Ez dot batua gura, nahasten nau-eta...

— Ez da norvegiararen adibidea bakarrik... Finlandian ere, Kalevala hartu zuten, suomiera estandarizatzeko oinarritzat; hau da, hango hizkuntza batua egiteko, idatzitakoari lehentasunik eman gabe, herri kantak eta kondaira zaharrak hartu zituzten. Estandarraren diseinuak ez ditu,

berez, hizkera naturalak ezabatu behar, eta Euskal Herrian hartutako eredia ez da munduan izan den bakarra. Arago, mundu osoan zehar sakabanaturik dauden suomitarrek beren nazioarteko irratia entzuten dutenean, oraindik badute latinez ekoiztutako irratsaioak aditzerik. Latina zela medio ulertzen nuen nik Axular hastapenetan, eta ez euskarazko egiturak ulertzen nituelako.

Konprenitu egin behar zuen. Herriak gorde eta erabili izan ditu hizkuntzak. Akademiek, berriz, garbitu besterik ez dituzte egin. Erabiltzaileak, ordea, zikindu eta kamustu egingen du lanabesa, baina, jakin, badaki nola ibili. Begira, bestela, greko modernoaren berreskurapen prozesuan zer gertatu den. A. Korais hizkuntzalariak proposaturiko “grekera garbia” (katharevusa deiturikoa) berrogeita piko urtean eredu ofiziala eta bakarra izan arren (halaxe izendatu baitzuen Greziako 1911ko Konstituzioak, bere 107. artikuluan), aldatu egin behar izan zuten, Ernest Psicharik kaleko erabilera arruntetik erakarrirako “grekera herritarra” ezinbestean onarturik. Izan ere, Literaturako Nobel Saria eskuratu duten greziar idazleek (Seferis-1963 eta Elytis-1979) demotiko aldaera herrikoia erabili dute beti...

Xalbak, dena den, ez zuen guztiz sinesten horretan, eta bere jarrera ezkor eta goibelean ezkututzen zen (*horrelakoxea zen Xalba... eta ez esan ezetz!*). Hura, errana dago lehen ere, tematia genuen bere portaera hartan, baina nik ez nuen erraz etsitzen. Iraupen luzeko korrikalaria nauzue eta. Suomitar gehienentzera, iraupeneko korrikaldiak gustuko nituen nik. Finlandiako heroiak izan dira betidanik maratoilariak, Paavo Nurmi, Ville Ritola, Albin Stenros, Hannes Kolehmainen... atleten izen historiko horiek edonork ezagutzen eta miresten ditu Finlandian. Dena den, agian, neure burua suomitartzat jo nahi ez dudalako, nik neuk, maratoien artean, baten bat hautatzekotan, ez nuke gogoratuko Helsinkikoa (1952),

Zatopekek irabazitakoa, ez 1920an Kolehmainen Anberesko garaipena, ez eta 1924ko Parisko finlandiarren erakustaldia ere, 1912ko Stockholmekoa baizik.

Egoera latzetan zaildutakoa naiz, neure amaren heziketaz. Badakit gozatzen egoera sasi-agonikoetan eta, bide batez, irauten ikasi dut. Horregatik, Stockholmeko maratoin, ia legendarioa izan zen Hannes Kolehmainen anaia zen Tatu suomitarraren lasterketa izugarria gogoratu ordez, bi gauza dauzkat buruan, esandako horri buruz. Bata, ahaztu ezina bezain arbuigarria; bestea, gogoan gorde beharrekoa eta, niretzat behintzat, eredugarria. Hona hemen.

Francisco Lazaro portugesak, beroa arintzeko edo, koipez igurtzi zuen soina, igerilarien antzera, lasterketari ekiteko. Bertan hil zen.

Shizo Kanaguri japoniarra, berriz, hain nekaturik zegoenez, hogeita hamar kilometroko korrikaldia egin ondoren, atsedean bat hartzearen, bideko etxe batean sartu eta lotan geratu zen hurrengo egunera arte. Inori ezer esan gabe (ez antolatzaileei, ez bere herriko ordezkari...) etxerako bidea hartu zuen. Behinola erretreta hartu ondoren, berrogeita hamabost urte geroago, hirurogeita hamasei urte zituela, Stockholmera itzuli zen, 1912ko maratoin lasterketa utzitako toki berera joan eta, handik abiatuta, bukatu egin zuen. Kanagurik berrogeita hamalau urte, zortzi hilabete, hogeita hamabi minutu, hogeitasei segundu eta hiru hamarreneko behar izan zituen... bere maratonia bukatzeko. Horixe da nire erdua.

Euskaldunen kulturaz interesatzen hasi nintzenean ezagutu nituen Mark Kurlanskyren lanak, *A Biography of the Fish That Changed the World*, batik bat. Horrela jabetu nintzen, eskandinaviarren antzera, sekulakoak eta bost pasatu ondoren, euskalduna gizaki zaildua dela. Bakailaoaren historia da bertan kontatzen digutena. Selma Huxleyek ere *The Basque Coast of Newfoundland* izeneko

lanean, horren berri eman zigun, baina, Kurlanskyren *The Basque History of The World* azken liburuan Gabriel Arestiren “Nire aitaren etxea defendituko dut” olerkia irakurri nuenean, euskal arima nolakoa zen jabetu nintzen. Buruz dakit oraindik:

Nire aitaren etxea  
defendituko dut,  
Otsoen kontra,  
sikatearen kontra  
lukurreriaren kontra,  
justiziaren kontra,  
defenditu  
eginen dut  
nire aitaren etxea.  
Galduko ditut  
aziendak,  
soloak,  
pinudiak;  
galduko ditut  
korrituak  
errentak  
interesak  
Baina nire aitaren etxea defendituko dut.  
Harmak kenduko dizkirate,  
eta eskuarekin defendituko dut  
nire aitaren etxea;  
eskuak ebakiko dizkirate  
eta besoarekin defendituko dut  
nire aitaren etxea;  
besorik gabe  
sorbaldarik gabe,  
bularririk gabe  
uziko naute,

eta arimarekin defendituko dut  
nire aitaren etxea.  
Ni hilen naiz,  
nire arima galduko da,  
nire askazia galduko da,  
baina nire aitaren etxeak  
iraunen du  
zutik.

Ez zen soilik Arestiren aldarrikapen bortitza. Euskal Herrian bertan nengoela ezagutu nuen Blas de Lezo zenaren historia.

XVII. mendeko pasaiatarrak hamabost urte zituela galdu omen zuen, bere lehenengo itsas borrokan, ezkerreko hanka. Hemezortzi urterekin, ezkerreko begia ere galdu zuen borrokan. Bartzelonako setioan, berriz, eskuineko besoa. Dena den, soin erdiaren jabe besterik ez bazen ere... euskaldunak piraten aurka segitu zuen borrokatzen Ozeano Barean... Beharbada, marinelen kultura izan daiteke. Horretan, norvegiarrak, portugesak edo euskaldunak kasta berekoak dira. Litekeena da, ordea, portugesak edo euskaldunak horren marinela onak izatea ez bakarrik bizitokiaren aurrean itsaso zabala daukatelako, “bultzatzaileak” biei tokatu zaizkielako baizik, atzean espainolak dauzkatelako, alegia. Halako bizilagunekin, itsasoa maitago izan behar, nahitaez, lurra baino. Ni, berriz, saamitar koitadu hau, japoniarraren eredukoa nintzen eta naiz, munduko marinela ausart haiek miretsi arren, euskaldunak ederretsi arren...

Amarena bizi eta gero, ez dut uste ezerengatik hiltzerik merezi duenik, baina, era berean, ez naiz gauzak erdian uztearen alde. Burutzeak merezi du, betiere.

Euskara ikasten hasi nintzelarik, Helsinkira joan beharra egokitu zitzaidan, 1993an. Han ikusi nuen Martin



Fiz, ikurrina eta piper-potoa lagun, jendea agurtzen, mara-toia bukatu ondoren. Hurbildu nintzenean, euskara pixka bat praktikatu nahian, ez zuela ulertzen esan zidan, saiatu arren, ezin zuela ikasi esan zidan. Adierazitakoa ulertu nion, baina ez nuen ulertu nahi.

— Euskalduna dena bandera espainolaren pean horren pozik agertzea ere...!

Gutunaren aferarekin, antzerakoa gertatzen zitzaidan. Nahiz eta niretzat berebiziko balorea eta balioa eduki, ezin nuen ezertarako erabili. Hau da, alde batetik –zertarako ukatu–, dirua behar nuen, Euskal Herrian geratzeko, eta, bestetik –hau albora ezinezkoa da–, gutuna Euskal Herriko Zientziaren Historiarako ez ezik, mundu osoko zientziaren ikertzaileentzat wolframaren aurkikuntzaz ikuspuntu berria eskaintzen zuela uste nuen. Lehen errandakoaren arabera, inor haietaz ez interesatzea ezin nuen ulertu.

— Hauek, dokumentuak ez ezik, monumentua ere badira. Nekez aurki daitezke garrantzi honetakoa, gainera...!

Horretan hartu nuen, ohi bezala, aitaren laguntza. Amazulo izanik, ez nuen inoiz izan aitarekiko harreman sanorik. Egia da gure amak, erromantiko bezain sentibera izanik, agian, izugarritzko hurbiltasunarekin hezi ninduela. Saamieraz hitz egiten zidanez eta Joensuun gu bezalako hiztun gutxi zegoenez, mundu txiki bat eraiki genuen biontzat, Kareliako lautada umeletan. Aitarekin, berriz, suomieraz hitz egiten genuen. Hura, gainera, hotza zen oso. Etxean ere zientzia gizon.

Amaren heriotzak aita aldatu egin zuen. Bigundu zenik ez nuke erranen, baina bere gorrotoak eta higuinak ez zuten kirtendu, beratu eta samurtu baizik. Eztitu egin zitzaigun, nolabait erran.

Euskal Herrian geratu ahal izateko berak emandako eskutitza berari itzuli beharrean saldu egin nahi nuela

jakin zuenean, haserretu orde, erabateko lankidetzaz eskaini zidan. Agidanean, berak, fisikaria izaki, Euskal Herriko Unibertsitatean aritzen zen beste fisikari ospetsu bat ezagutu zuen. Ez dut izenik aipatuko, jatorra izan baitzen nirekin aitaren lagun hori. Gainera, korrika egitea gustatzen zitzaionez, niri bezala, gure harremana zuzena eta simetrikoa izan zela esan daiteke.

— Nahi duzunean gera gaitezke, korrika egiteko edo zerbait hartzeko... zuk zeuk...

Hark eman zidan Foru Aldundiko Kulturako funtzionario abertzale haren berri. Bera izan zen zubia, gero gertatuko zena errazteko. Dena ongi atera ez bazen ere, aitaren lagunak ez zuen batere errurik ukan. Baina gauzak gehiegi aurreratzea ez da komeni. Ilundu du. Buruko minez nago. Eguraldi aldakorraren eragina izango da, seguru asko. Itzaliko dut, bada, bideo kamera. Hurrengo baterako utziko dugu gertatu zenaren azken kontakizuna.

Bogotan  
Granada Berria  
1796ko irailaren 28an

(jarraipena...)

Erakundeak hau guztia, jakin, bazakik, baita kanoiak behar den bezala nola fabrikatu ere, baina horrek ez zidak bizirik salbatuko. Alderantziz, ustez gurea zen Egiak dena azaldu zioke erregeari. Traidore zuria! Ezin naitek lege prozesu publiko batera eramanez. Gauza gehiegi zakiat, baina segur nagok nire bizitzari gutxi falta zaiola amaitzeko. Beraz, informazio honekin zer egin behar duan agertuko diat.

Informazio hau nire emazte Maria Joxepa Bastidaren bidez eskuratu ahal izango duk. Gaur bertan abiatuko duk Mexikorantz gutun honekin. Berak ez zaku ez honetaz guztiaz. Ni, eta hik badakianez, ezin nauk hemendik mugitu. Susmagarri den asko, gehiegi, aurkitzen diat neure inguruan.

Erakundearekin kontaktatzeko, ez izan inolako ardurarik. Berak joango dituk hiregana. Baina, hau bai garrantzi handikoa dela: disimuluan segi! Ez aldatu inola ere heure portaera. Hau hire sekretua izango duk, Fausto... Dena dela, erraza izango zaik, ez baitu inork jakin beharrik gure partaide berria haizenik.

Dagoeneko hasi duk, Mexikon bertan, erregeari aurkako iraultza pizten. Denbora pasa ahala, handik penintsulara itzuli behar izango duk. Orduan, harremanetan jarri Soralezko armagintzako gremioekin. Horixe duk

egin behar duan azkena. Gainerakoa honekin batera etorriko zaik. Bitartean, orain arte bezala segi, eta, ahal duanean, nirekin oroitu eta negar egin. Osasuntsu eta gazte egon arren –oraindik ez ditiat berrogeita hiru urte–, bizitza motza geratzen zaidak eta...

Hirea betirako,

Joan Joxe

2002ko uztailearen 11n

## MEFISTOREN HITZARMENA

*“Bai, haiek dira ezki ilunak,  
sendoak, nahiz eta zaharrak,  
eta orain haiekin topo egiten dut,  
pelegrinazio luze honen ostean”.*

(Fausto II. Azken atalean)

Laster izango da “Pobre de mí” abesteko eguna, nire bizitza aldatu duten San Fermin festa hauetan. Beroa, par-randa eta, beti bezain isilik, Xalba lagun.

Berari helaraziko dizkiot grabatu ditudan bideo zinta hauek... (*Kaixo, Xalba!... hau bukatzera doa eta...*)

Jende guztia lotan dagoela bukatuko dut zinten bidez azaldu nahi izan dudana historia hau.

Laponiara itzultzea deliberatu dut. Itzuli, diot, amak eta aitona saamitar kulturaren eta hizkuntzaren hezi nindutelako, baina, egia erranda, ez naiz inoiz gure mugaz gaindiko iparburuko lurralde haietan izan. Baina, orain, joan egingen naiz.

Urte hasierako sasoiaren, urtarrilean, ilbeltzean, ez nuen halakorik uste. Nire erabakia Euskal Herrian betirako geratzea zen. Euskaldun bihurtu nahi nuen neure burua, eta prest nengoen edozer egiteko, amesten nuen hura lortzearen.

Euskal Herrian ikusten nuen bizirauteko herri grina, gurean ahituta daukagun elkarren arteko bizieraren partez.

Euskal Herrian jende nahikoa bazegoen, inoiz bakarrik ez sentitzeko. Gurean, bakardadea dugu nagusi, ilbeltzaren gaueko egun goibel luzeetan.

Aukeran, hemen nahi nuen gelditu. Aukera handirik ez nuenez, hau da, ez dirurik, ez ezer, hautatutako honi nola edo hala eutsi nahi izan nion. Horregatik hasi nintzen pentsatzen Elhuyar anaïen arteko eskutitza saltzeak horretarako bidea emango zidala. Beste norabide batean jarri nau horrek, ordea.

Egunen batean, zinta hauek ikusiko edo entzunen dituzuenok, aipatu eskutitza (edo haren fotokopiak, hobeto esanda...) irakurri ondoren, erraz jabetuko zarete haien garrantziaz.

Joan Joxek oso modu argian anaia Faustori azaltzen dionez, wolframa aurkitu zuenean, ez ziren ustezko zientzia neutral baten araberrako ikerkuntza egiten ari, baizik eta Gaztelako Armadarako espioitza lanean. Areago, masoi antimonarkikoen espioitza sareak (*hargin beltz* haiek!...) harrapatzen zituen, bere baitan, Bergarako Errege Mintegi ospetsuak eratutako ekitaldi eta pertsona asko. Irakatsi ohi denaren aurka, garai hartako Ilustrazioa ez zen inolako giro filantropikoan sortutako jakintzaren aldeko joera desinteresatua, ezkutuan zeuden interes jakin batzuen araberrako jarduna baizik.

Armada modernoentzako wolframak duen garrantziaz gutxi idatzi ohi da euskaraz, gaztelaniaz edota frantsesez. Galaikoportugesez, ordea, gai literario ere bihurtu zen aspaldi. Xoxe Neira Vilasek Kubatik idatzitako eleberrigintzan, kanionak egiteko wolframaren kontrabandoa behin baino gehiago azaldu izan da. Neronek erreferentzia hura, ordea, berriki ingelesez argitaraturiko *A Small Death in Lisbon* izenburua duen Robert Wilsonen nobelari esker eskuratu nuen.

“Adiskideen Elkarteak”, beraz, bazuen zertaz lotsatua. Euskal Herriko modernitatearen historian oinarritzkoa izan

zen mugimendu kulturala, beraz, pipiak janda sortu zen. El-huyarren eskutitza lekuko. Nire aburuz, sekulako dokumentua zen, ia kultur monumentua, ordukoa behar bezala ageriarazi ahal izateko. Ikerketa berriei jorratzeke zeuden bide asko irekitzen zizkiena. Hitz batean, altxorra. Nire altxorra.

Aitak, goian erran bezala, bere lagun fisikari baten bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundian behar nuen tratua gauzatu ahal izateko bidea erraztu zidan. Horrela iritsi nintzen Ignatiusengana. Ur handiko arraina.

Ez pentsa izena asmatu dudanik. Beste zenbait pasartetan ez badut izen zehatzik erabili nahi izan, Ignatiusena behar bezala azaltzeari premiazkoa deritzot.

Euskaldun tipo-tipokoa zen (da?). Garaia eta dotorea. Kimikaria, nonbait; horregatik lotu bide zen berehala eraman nion gaiarekin. Bere traje urdina, ia beti lisatu berria zirudiena, eta erotasun puntu bat zuen begirada zorrotz hura eduki arren, oso hurbileko agertu zitzaidan hasieratik bertatik, nahiz eta ahoskera bihurrikoa izan eta askotan oso ongi ez ulertu. Ignatius idazten zuen izena, Euskaltzaindiak ñ ez baitu hobetsi euskara baturako nahiz eta izen propioetarako onartu. Esan beharrik ez dago Iñigo Lopez de Oñaz y Loiola zenarengatik zeramala izena.

Nire kontrakoa zela esan daiteke (agian, nire positibo... ). Osterantzean, nik ez baitut janzkera batere zaintzen. Ohiko ditudan galtza bakeroekin, edozein gauza janzten dut, garaiaren arabera. Kanpoan banengo, Salvation Army eskuratutakoa (hemengo Emaus arropa birziklatzeko dendetan erositakoa, alegia) jantziko nuke. Ez diot koloreari edo formari begiratzen, erosotasunari baizik. Nire jantziak ez dira inoiz lisatuak izaten... eta ezin esan piura apaina dudanik. Ez naiz liraina, ez airosoa.

Lehenengo bisitaldian, ez nion jatorrizko eskutizik eraman. Lehenago erakutsi ditudan fotokopiak ziren erakutsi nizkionak.

— Hementxe dauzkazu idazkiak beren horretan...

Nire hitz jarioa berebiziko arretaz aditu arren, fotokopiek ez zutela inolako baliorik adierazi zidan, argi eta garbi. Edonork eginiko dokumentu faltsuak izan zitezkeela zioen, eta dokumentu maila ere ezin omen zitzaien eman.

— Jakin-mina pizteko moduko izkribuak izan arren, apokrifoa direla dirudi...

Hipotesi bezala ezagutzen zuela, baina Elhuyarren jardun historikoa zikintzeko asmakeriak besterik ez zirela seguru zegoela.

— Ez dut uste benetakoak direnik...

— Gordean dauzkat zinezkoak.

Eta gure aitak nola eta non eskuratu zituen gaineratu nuen.

— Euskal Herrian utzi nahi nituzke. Zuenak dira, aldez edo moldez; zuen historiaren zati bat edo.

Gero gertatuko zena gertatu ez balitz, nire predikua entzutean emozioz bete zela esango nuke. Orain, badakit ezetz, ez zela horrela izan, baina, une hartan, horrelaxe ematen zuen.

— Miragarri bezain harrigarria da guretzat zulako batek honako deliberoa hartu izana.

Are gehiago, zer euskara ederra erabiltzen nuen hasi zen laudatzen eta, neure “euskaldun berriaren” portaerekin, zer nolako irakaspena ematen nuen azpimarratu zuen. Nik, nolana ere, Euskal Herrian geratzeko asmoa nuela esan nion, argi eta garbi, eta, era berean, horretarako dirua behar nuela.

— Dirua ez da arazo...

Aldundiak ba omen zuen mota haietako ondare erosketa kulturalak gauzatzeko ogasunaren baimena. Horrekin guztiarekin, urtarrila bazen ere, euri hotza egiten zuen eta kalean ez zuen eguraldi onik egiten, baina irribarre argiak berotzen zuen ene aurpegia handik irteterakoan.



Bigarren elkartzea tankera horretakoa izan zen. Aurretik elkar ezagutzen genuenez, berehala sartu ginen gaian.

— Zenbat nahiko zenuke eskutitzen truke?

Dirua ez zen arazo izan, Ignatiusek lehen azaldu bezala, eta, inolako txeke edo transferentziarik izan beharrean, eskuan eman zidan eskatutakoa. Eskutitzen testurek eta testuek liluratu zuten funtzionarioa.

— Bai paper zaharra, bai kaligrafia ederra...

Horrekin ikerketa lerro berezitu berri bat irekitzerik bazegoela. Horretarako, Aldundia prest zegoela behar ziren laguntza motak emateko... Gauza ugari erran zuen etengabeko hitz aspertu luze hartan, benetan amaigabea iruditzen zitzaidan konplimendu koipetsuan. Ez zuen mihipeko zainean herdoilik. Baina nik, alde batetik, egingdako “saldukeriaz” deseroso bezain lotsaturik eta, bestetik, eskuratutakoa lehenbailehen ixtear zegoen diru kutxaren edo bankuren batean sartu nahian, korrika eta presaka, alde egin nuen.

— Eskerrik asko, agur eta hurrengo arte!

Eskaileretan behera ziztu bizian nindoala, euritakoa bere bulegoan ahaztu nuela konturatu nintzen eta, korrika batean igota, deitu gabe sartu nintzen berriro Ignatiusen gelan. Hantxe zegoen, dokumentu birringailuaren aurrean, aitak emandako jatorrizko eskutitzak nola txikitzen ziren ikusten.

— Baina...!

— Ken begietatik, irten hemendik eta itxi atea, arren!—, esan zidan motz bezain kopetilun.

Hala egin nuen, zurbil, ezer esan gabe. Trabatzen zaizularik mihia, orduan ihes egia. Ni zorrez itoa nengoe-lako, jakin gabe jarri nuen otsoa artzain. Dena ilundu zitzaidan. Ezin nuen ezer ikusi. Zorabiatu egin nintzen. Argi zegoen gutzia goibeldu zen. Hotzaren hotzez, goragalea

sentitu nuen. Gogora etorri zitzaidan gure aitaren erreferentzia zen Charles Fourierrek zerrendatutako hirurogeita lau kabroi mota izendatzeko zerrenda osoa. Frantsesez antolatu zuen berak, jakina, *Cocu, Cornette, Cornard...* eta horrela, hirurogeita lau bereizketa izendatu arte. Denak batera, huraxe bera zela iruditu zitzaidan gure funtzionario kabroia, eskasa eta ezgauza. Horixe baita, funtsean, gizaki mota honen ezaugarri funtzionala, hau da, gauza direla, beren neurria, besteengandik jardunbide doilor eta maltzurrenak aterarazteko. Neure sasi-justifikazio eta guzti, argi zegoen neroni nintzela saldua, alferrik saldua, gainera. Zalditik astora eroria. Horrela aukeratu nahi izan nuen neronek, eta patuak nire hautuaren ondorio zitalak agerian uzten zituen. Tamalgarria, benetan. Zeren, adiskide batekin hausten duzunean, baldin berehala osatzera eta bat egitera entseatzen ez bazara, jakizu ezen, gero eta gero gaitziago izanen zaizula, gibelatukoago, urrundukoago eta ezantsiatukoago zarela.

Zergatik egin ote zuen ezin nuen asmatu. “Burdinak burdina zorrozten du, bai eta jendeak jendea ere”, zioten Salomonen hitz zuhurrek. Agian, Faustok bildutako ospea ez zapuzteagatik. Edo alderantziz. Zorte txarrekoa eta iluna izan zen Joan Joxeren patua ez aldarrikatzeagatik. Edo Gaztelako Koroarekin izandako hitzarmen justifikaezinak ezkutuan irauarazteko..., edo gutunean oso argi azaltzen zen masoneriaren garrantzia, herri euskarazko *hargin beltzen* itzalak zeharo ezabatzeko... batek jakin! Hau da, betiko Elhuyarren historiari eutsiz, ezertxo ere higitu gabe, hartan Goethe zaharraren jarrera berpizten zen: *Nahiago dut injustizia desordenua baino*. Euskaldun askorengan nabaritu dudan jarrera kontserbadore bera ikusten nuen Ignatiusen portaera faltsuan. Badarik ere, batzuentzat euskaldun izatea dagoena gordetzea besterik ez omen da. Ez dute uste kanpoko eragin onik egon daitekeenik;

Sabino zaharraren aldeko garbizale zikinak dira, hori horrela esatea oso txukuna ez izan arren.

Nik, gizajo honek, euskaldun bihurtu nahi nuen. Herri zahar gaztetu honek liluratua bezain harrapatua ninduen. Bertan bizitzeak bazuen niretzat zentzurik. Esanguratsua zen gertatzen zitzaidan guztia.

Orain, aldiz, ez naizela hemengoa jabetu naiz, Sarrionandia irakurri behar izan gabe. Hala ere, ez dut “Emilia Galotti” rik nire mesanotxean umezurtz utziko. Hiltzeko gogoia izan arren, ez dut Wertherrek bezala neure buruaz bestekoa eginen.

Hemengo bertako bati halakorik gertatuz gero, ez dakit nola hartuko lukeen, baina ni, behintzat, erabat zapuztuta gelditu nintzen. Damututa, nolabait erranda. Iruzurtuta. Erremediorik gabe, bakarrik.

Euskal Herriak eskaintzen zidan lagunartekotasunak ez zidan balio izan, sortu berri zitzaidan bakardadea uxatze-ko... Baina nire patua, onartu beharrekoa, bakardadea zela hasi nintzen jabetzen ordutik aurrera. Areago, honenbeste miresten nuen euskal nortasuna hasi zitzaidan agertzen beste ikuspuntu zeharo ezberdin batetik. Euskalduna, zezen baino gehiago, idi bihurtu zen niretzat. Agerian askatasunaren egarriz bizi den herria azaltzen bazen ere, mendekotasunean hezitako artalde zintzoaren antzeko bihurtu zitzaidan. Beti talde beharrean. Mendeko beti. Patu tristea. Etxeari, sedentarismoari horrenbesteko garrantzia ematen dion kulturak ezin du erabat ibiltaria den espiritua ulertu. Marinelaren jiteak jatorrizko portua du amets. Itzulera beti da helburua eta bakardadea zerbaiten falta bihurtzen da. Egoera jasanezina. Burura etorri zitzaidan Goetheren jarrera bera: *Askatasun apostoluak higuingarriak izan zaizkit beti. Azken finean, bere apeta bakarrik bilatzen zuen bakoitzak beretzat.*

Dudagoitia daukat nik euskaldun eredugarritzat. Bere koadrila behar duena eta inguru txiki horretatik kanpo

lotsatzen dena. Apaltasun horrekin nazkatzen hasia nengoen. Edozein gauzaren aurrean, edonorekin ere, lotsa gorria sentitzen zuen Xalbak. Ia-ia ahalkeria, ia beti lotsa-lotsa eginda.

Euskal Herrira etorri nintzenean, bilbotarrei buruz kontatu ohi dituzten txiste eta pasadizoak ez nituen ongi ulertzen. Bilbotarren harropuzkeriaz barre egin nahi izanak Bilbokoak benetako euskaldunak ez zirela adierazi nahi ote zuen pentsatu nuen. Euskaldunek pairatu nahi ez omen zuten lotsa falta bilbotar handiuste haiengan leporatzeko ohitura zegoen.

— *Zertan bereizten da Jainkoa eta bilbotarra*, erran zidaten behin.

— Jainkoa toki guztietan dagoela, baina bilbotarra egona da —ihardetsi zidaten.

Ez nion graziarik hartzen hasieran, ezertan sinesen ez duen fedegabe honek, baina, txispa hartu nionean, konturatu nintzen euskaldun izaera lotsatiaz (ahulaz...?), eta horren ondorioak atzematen hasi nintzen. Aspaldidanik, euskal nortasunari buruz idatzitako liburu bat irakurri nuenean, Latxagak bere herri hizkeran eta Auspoa sailean plazaratutako *Euskal Sena*, hain zuzen, jatorrizko euskardunen mundu txikiak ohartzeko aukera izan nuen, baita hartatik aterarazteak ekartzen zuen auzo lotsaz ere. Irri-garri egon beharra izuaren agerpena besterik ez da. Euskal nortasunak badu bere baitan barregarri geratzeko beldurra. Izaera makala da. Ziurtasuna behar duena. Gure herria, berriz, ibiltaria delako edo, bere auzokoek mespretxatua izan bada ere, ez da inoiz horretaz lotsatu. Saamitarrago sentitzen naiz sasoi honetan, beraz, euskaldun baino, eta, era berean, kementsuago.

Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen. Ur irakinean ez da eulia pausatzen. Ardurako arropari ez zaio zerrenik egiten. Hargatik, ez dago behin ere itsasoa geldirik;

badabil, higitzen da, marea gora eta behera. Zeren, bestela, usain litzateke, kirats litzateke, eta are apoz, sugez, igelez eta likiskeriaz bete litzateke, lakuak, aintzirak eta beste ur geldiak betetzen diren bezala.

Orain, uztaila da. Ez naiz lotsa, eta ez diot bakardadeari beldurrik izan nahi. Aitzitik, erakarri egiten nauela erratera ausartuko nintzateke..., baina, dena den, nire testigantza ahalik eta argien utzi nahian nabil.

— Hanka sartu dut!

Sanferminetan agurra eman nahi nion Euskal Herriari. Xalbarekin elkartu, eta hementxe ibili gara, ia atsedenek hartu gabe, txupinazoa bota zutenetik. Egunak luzeak izan dira, eta gauak luzeago. Inoiz lo kuluxkaren bat egiteko tokia aurkitu arren, etengabeko ibilera izan dela dirudi. Festa bortitzak bezain jendetsuak izan dira hauek. Xalba eta biok ibilita ere, ez dugu batasun kontzientziarik eduki jaietan. Ez nor geure aldetik ibili garelako, batera jardun da ere denbora gehiena ia kontzientzia galduta, alkoholean murgilduta pasatu dugulako baizik. Dena den, festa hauek kontzientziarik gabe iragan daitezke, eguneroko ohiturak erritu bihurturik, modu mekanikoan, ia automatikoan, askotan errepikatzen direlako. Horrela, zezenen aurrean korrika egin ostean, zezen plazara iristen da, non betizu motako bat bestearen atzean eskaintzen zaion zelatan dagoen publikoari. Harmailetan, berriz, behean dagoen publikoari begira egoten da beste publiko bat. Beheko zirkuluan biltzen den jende izerditsu eta zikinarekin, gaua lorik egin gabe pasatu dutenekin kontraizanean daude harmailetakoak, goiz esnaturiko jende garbia eta printzipala.

Zezen plazako hanean, borrokak dira nagusi. Odolak burua berotuta, ez da inor geldirik egoten. Korrika iritsi direnen artean mota guztietako piztiak egon arren, hasierako zezen beltzak eta abere handi lasaiak pasatu eta gero, betizuak eta abar, ez da inor lasai geratzen. Denak daude

zelatan, zer gerta ere... Goiko begiraleak, aldiz, ikus-entzulearena egiten du. Lasai asko.

Zezen plazakoa bukatu ondoren, hamaiketako dator, aperitifa gero, bazkaria, kopa eta musa, zezenetara berriro, merienda, manifa, afaria, txosnak eta hurrengo egunera arte. Ez da plan makala. Ez eta egunero erraz eramatekoa. Baina Xalbak eta biok ez dugu lan horretan inolako arazorik ukan... azken arazoa azaldu arte, behinik behin.

Adierazitako arazoa ez da inolaz txikia izan, ordea. Azken aurreko egunsentian, oso entzierro azkarra burutu ondoren, ailegatu ginen plazara, non amerikano batzuek, nahi gabe agian, baina modu nabarmenean, traba egin zieten atzetik korrika zetozenei. Berehala hasi zen zezenak gobernatzen zituen artzainetariko bat makila astintzen eta amerikanoak egurtzen. Hauek, berriz, oldartu egin ziren eta kolpeak banatzen hasi ziren; denbora laburrean, gogoak berotu eta sekulako borroka sortu zen. Erasoa toki guztietatik zetorren. Horrela, norberak burua gordetzeaz nahiko lan bazuen, egurra banatuz eta guzti egin beharrekoa.

Halakoak nahiko arruntak badira ere, eta maiz berehala amaitu arren, egun hartakoak ez zidan zapore onik utzi tripetan.

Gosaltzera joan aurretik, zezen plazako harean eserita geratu nintzen, Xalba non zegoen ez nekiela. Nire inguruan izerdi ustelaren usaina, gorotz arrastoak, karkaxa, gorro eta kerruak. Garai hartan jaitsi ohi da harmailetako publikoa zezen tokira. Batzuek argazkiak egiten dituzte, besteek hondarra hartzen dute, oroigarri gisa... Nahiz eta bertan jende oso desberdina aurkitu ohi den, ez nuen uste pertsonaia huraxe bertan topatuko nuenik.

— Perkele!

Zergatik ezen horixe baita deabruaren izena suomieraz eta gureztat madarikaziorik handiena. Anitz gauzak

egiten dio gizakiari gaitz eta kalte, eta haietarik, hira, kole-  
ra, haserretasuna eta mendekatzeko desira desordenatua ez  
dira txikiak...

Beste toki batera begiratzen saiatu arren, begirada  
joan egiten zitzaidan, eta, azkenik, bere begi harropuztekin  
nire begiradarekin egin zuten topo.

— Deabru bat eta erdi!, nire kolporako.

Berak, berriz, hurbildu ondoren, halakoa erran zidan

— A zer nolako piura daukaan...!

Ni isilik.

— Kale-garbitzaileen uniforme berria jantzi duk ala?

Goiz izan arren, bero handia egiten zuen. Zutitu eta  
zorabiatu bezala egin nintzen. Burukada eman nion su-  
durraren erdian. Automatikoa eta laburra izan zen. Ma-  
kurtzen ari zela, sekulako ostikoa eman nion aurpegiaren  
erdian eta, konturatzerako, inguruko guztiak hasi ziren  
berriro liskar bizian. Ez zitzaidan asko kostatu aldentzea.  
Jendetza demasa zegoen, eta nik bidea ikasia nuen, ordu-  
rako. Plazatik jalgi orduko, atzera begiratu nuen, eta gi-  
puzkoar harropuztaren gorputza lurrian zegoen oraindik,  
burua altza ezinik, deabruak naramala!

Gaurko egunkariak atzoko zezen plazako istiluen berri  
ematen du. Jende asko dago oraindik ospitalean. Batzuk  
oso larri, nonbait. Ez dakit haietariko bat gure funtziona-  
rioa ote den. Horixe bakarrik behar genuke!

Nik, berriz, pena hartu dut, adierazi azaldu behar  
nizkion gauzak erran ez nizkiolako. Ezer erran gabe joan  
nintzelako, bere Foru Aldundiko bulegotik, buru-makur  
eta isilik. Peñafloidak Elhuyarren garaian deskribaturiko  
*Adarra jo zioten mozkorra* bezala, nolabait. Iruñean aurki-  
tu nuenean, hark ez ninduen ezagutu nahi, eta ni, oster,  
ez nengoen neure onean, baina erranen nioke, bai, erran  
izanen nion, baina, zoritxarrez, beharrezko sasoian ez  
nuen mihia bere lekuan izan... Hiru bekatu suerte zaizkit

beste guztien gainetik itsusi: urguilua, aberats gezurtia eta lotsa zentzugabea.

Nik saldutako dokumentuak birrindu arren, han zegoen informazioa ezin izango dute galdutzat eman, ez dute desagerraraziko. Informazio pribilegiatuarekin bizitzen ohitu diren burokratek badutela, oraingo honetan, jitea aldatu beharra. Egun, berriz, informazioa nonahi agertzen dela eta, kasu honetan datuak ez direla galduko seguru nengoela. Ez bakarrik neronek ahaleginak eta bost eginen ditudalako hori horrela gerta ez dadin, baizik eta, dagoeneko ikasi dudanez, informazioa ez delako hain erraz birrintzen. Aitzitik, egun badakit informazioa, energia bezala, ez dela galtzen, eraldatzen baizik. Hau da, fisikan funtsezkoa den energiaren kontserbazio legeak indarra bera duela informazio munduan eta, dokumentuak birrinduta ere, beste mota bateko iturburuak aurkitzea bidezkoa izan daitekeela, Joan Joxe Elhuyarren gutunean agertzen zena berreskuratzeko.

Egun, informazio gizartea deitu duten honetan, ez dugu inoiz guztiz jakiterik daturen bat zeharo ezabatuta dagoenentz. Hau da, gure ohiko artxibategi bihurtu diren ordenagailuetan sartutako informazioa gainetik kendu nahi izanda ere, badago aurkituko duenik. Informatikan adituak badaki datua aurkitzen, ezabatua izan ondoren. Areago, egun erran daiteke edozein informazio aurkitzerik badagoela, duela hainbat mende hilda dagoenaz, haren bizeraz, pasadizoaz... Sekreturik zikinena ere, kaka bezala, azaleratuko da noizbait... eta hori ez dago esplikatu beharrik, berezkoa baita.

— Werther dut izena.

Erromantikoak bere buruaz beste egin zuen. Faustok deabruarekin hitzartu zuen betiko bizitza gaztea. Ni neroni zahartu (zuhurtu?) naiz bidaia honetan. Asko ikasi dut. Ez euskaraz eta euskal kulturaz soilik, neure izaeraz



ere bai. Gizakiak hiru tokitan batera jakin behar du irauten: lehenaldian, orainean eta geroan. Beraz, bizitutakoak neurekin eramanen ditut, bizi naizen artean. Ez dut laugarrenik onartuko: betiereko itzulera ez dut laket. Anitzak eta handiak dira (orainokoa ere aditzera eman den bezala) luzamendutan ibiltzeak eragiten dituen damuak eta kalteak. Baina damu guztien gainekoa, kalterik handiena, galgarriena eta beste guztiak iragaiten eta ahantzarazten dituen da, egozten baitu fingabeko gerora, hondar gabeko leizera, sekulako penetara. Mefistok ez nau bere hartzarmenaz harrapatuko eternitaterako, nire saldukeria nabarmena izan arren.

Ez dut harengan sinesten, Jainkoarengan sinesten ez dudan neurri berean. Eta ez dut beti gazte bizi nahi. Ez naiz ekintzaile bat. Eskarmentua hartuta, eszeptizismoaren premiaz ohartu naiz.

Ez baitago itzalik gabeko zuhaitzik, ez eta itzalik gabeko eguzkirik. Haltzak ez duela bihotzik eta itsasoak esperantzarik ez duela irakurria banuen ere, oraintxe jabetu naiz haien esanahiaz. Ez nago etsiturik, baina ez dut itxaropenaren beharrik. Fausto banintz, beldur nengoke, eta edozein gauza salduko nuke itxaropen ezak sortzen duen beldurra gaintetik kentzeko. Izua uxatzen ikasten hasia nago, ordea. Kea baino gutxiago gustatzen zait.

Erljioentzako, gizaki denak dira gaiztoak, norberarengandik hasita. Jaiotzatik bertatik daramagu jatorrizko bekatua geurekin, harik eta erlijioaren bidez berpiztu (birjaio) arte. Bizitzaren ikasketa, ondorioz, ezetzaren jarioa da. Norberaren desioei (deabruaren tentaldiei) ezetz erranez garatuko dugu Egia eskuratzea lortuko duen heziketa.

Modernitateak niaren onura aldarrikatuko du, berez gaiztoa zen Antzinako gizakiaren kaltean. J.J. Rousseauentzat, gizartetik at hezitako *Emilio* izan zitekeen gizasemerik onena zen. “Besteak” omen dira deabrua.

Garai batean, Jainkoan edo Deabruan sinistu zuenarentzat, azpiko amarruz ulertu beharra dago mundua, beti baitago ezkutuko azalpenen bat. Unibertsoaren ordenarekin fedea zuenak nekez uler dezake ausazko mundua, nahiz eta bizitza bera zorizkoa izan.

Hauek guztiek, Sakratua arrazoi bihurtu dutenek eta Arrazoa sakralizatu dutenek ere, gizakia ezarri ohi dute munduaren aurretik. Nitasuna hastapenean. Baina ez dute kontuan hartu nahi gizakia bera ekoizpena dela. Hau da, harreman jakin batzuen ondorioa besterik ez. Eta, hori jakin artean, ez dira jabetuko erabakitzea zer den. Ez aukeeratzea edo hautatzea soilik, deliberatzea baizik.

Elhuyartarren artean, Joan Joxek Faustori bere sekretua helarazi zion eta, halaber, kide bihurtu. Anaia izateaz gain, sopikun bilakatu, baina, nola edo hala, Goethek adierazitako Faustoaren moderniak denok inplikatzeko gaitu.

Joan Joxe Elhuyarrek bere anaiari historiak denok lotzen gaituela adierazi nahi izan zion, beraz. Guztiok gaudela inplikaturik, ez jakin arren. Fausto Elhuyarrek ez omen zekien hori, baina jakin gabe edo jakinik, inplikazioa bazegoen. Sekretuaren jabe izateak ez du arintzen ezinbesteko konplizitatearen pisurik, izurik. Joan Joxe akabatu zutela dirudi (Elhuyar aldizkariaren hemerrotekako testuak hala dio, behintzat), eta Faustok, bizitza luzea izanik, eskuratu zuen wolframaren aurkikuntzarekin lortutako ospea, edireitzak eragindako dena, berarekin bezainbeste, gutxienez, Joan Joxerenak ere baziren. Denborak ezarri ditu izenak eta datuak beren tokian. Ignatiusek birrindutakoak ez du desagerraraziko informazioa. Grabatzen ari naizen bideo zinta hau lekuko.

Ezin erran, gainera, zientzia neutralik dagoenik. Ez eta ekidistantzian oinarritutako historiarik ere. Aitzitik, zientziak zein historiak gizakiak sortzen eta erabiltzen dituen gainerako jardun guztiek bezainbesteko kutsadurak dituzte.

Zientzia zikinduta eta salduta daukagu, bere sorreratik bertatik, eta ez dugu kexu izan behar zientziak sortzen dituen zabor kutsaduraz soilik; zientziak berak hartzen dituen ikerbideetatik hasi beharra dago gure kezka zabaltzen. Eskarmentatua nago jadanik, eta ez naiz damu. Etorkizunak ez du esperantza errazik, baina, Unamunok zioenez, eszeptikoa ez da zalantzas dabilena, etengabeko ikerketa eta bilaketa maite duena baizik. Honezkero ezin naiz lotsatu, hori baita, finean, nire bidea. Ibiltaria izateari ezin diot ihes egin. Ijitoa baino higituagoa nauzue. Hautuz. Hor dago gakoa.

Euskaldunak lotsati bakartiak dira, beren ingurukoak gertu badaude ere, edo gertu dauzkatenean... Saamitarrak familia handietan bizi izan gara beti. Hemen etxeko erreferentzia funtsezkoa izaten bada, goi lautadan herri ibiltaria da gurea. Etxerik ez duena. Etxea berekin daramana. Ez diogu hotzari aurre egiten inongo batimendutan, geure arteko berotasunean baizik. Horregatik, bakardadeari diogun izua berezia izaten da, baina, era berean, guretzat, bakarrik egotea dugu ohitura txar guztien iturria, eta, edozein tokitan gaudela, geure artean egonez gero, etxean gara. Neronek ere badut, beraz, herriaren premia.

Halaber, neure esperientzia helarazi beharra daukat. Zorretan nago Euskal Herriarekin, eta neure historia euskaldunei zor nien. Goethek berak zioenari erreparatuz, gartzetan izan nahi duzunarekin kontuz ibili, zeren handitan halako bihurtuko zara eta. Bada, gartzetako helburuak berreskuratzeaz gain, neure kondairatxoa behar nuen kontatu. Bakoitzak bere itzala baitu. Hona hemen, beraz, bideo zinta hauetan.

Uztailean, gauerdiko eguzkia dugu Inari aintziraren hegietan, Iparburutik gertuko ezpondetan, saamitar zaharren lurretan. Haren beroa behar dut.

“Pobre de mí” abestu ondoren, hara joanen naiz, suomitar jaiotako saamitar honek halaxe deliberaturik.

Egun suomitarren mendean dauden ene arbasoen lurretara. Estaturik ez duen eta estaturik onartzen ez duen gure herriarengana.

Ez adiorik...

*Aspaldian ene begi lotsatuek  
ikusitako irudi lanbrotsuak  
berriro ere nireganatzen zarete?  
Zuek nirekin betirako uzten saia nintekeen?  
Eromen horretarako prest al dago nire arima?  
Berriro ere hasi zarete biltzen.  
Agin ezazue, bada,  
nire ondotik sortuz, laino eta lurruna;  
zeuon prozesio hats magikoaz  
ene bihotz gaztea dardarka baitabil berriro ere.*

Johann Wolfgang Goethe (“Urfaust”) 1790

## HEMEROTEKA

Elhuyar, 9,3 (1983)

### ALDIZKARIA.-

Joan Joxek, Ameriketako egonaldi honetan, ikerketa ugari egin zuen merkurio, platino eta zilarrari buruz, azken hauen lagun hurbila izatera iritsi zitzaion Celestino Muris-en lankidetzaz. 1788an, **Maria Josefa Barbara Bastida y Lee**-rekin ezkonduarik, zortzi urte geroago, 1796ko irailaren 28an hil zen, Bogotan, nahiko gazte, berrogeita bi urte zituelarik.

Faustori dagokionez, Mexikon egon zen 1821 arte. Bere ekintza nagusia Meatzaritzako Eskola eraikitzea izan zen eta, urte horietan guztietan, meatzetarako metodo berrienak sartzen saiatu zen. Bertako kultur munduan buru-belarri murgildu zen eta logia masoniko bat ere sortu zuen. Euskaldunentzat hain ezaguna den **Wilhem Von Humboldt**-en anaia batekin, **Alexanderrekin**, adiskidetasuna egin zuen eta, Mexikori buruz, argibide anitz eman zion “Essai politique sur le Royaume de la Nouvelle Espagne” liburua idazteko. 1814an “**Amonedazioa Espainia Berrian**” liburua idatzi zuen. Baina bere jarduera eraginkor hau moztua izan zen bat-batean, Mexikok bere askatasun-iraultzari hasiera eman zionean. Faustok Espainiara itzultzea erabaki zuen, 1821ean.

Espainian, kargu administratibo garaiak eman zitzaizkion, hala nola Meatzaritzarako Zuzendaritza Orokorra, zeintzuek Espainiako lehen geologo taldea formatzea (berak Madrilen eraikitako Meatzaritzako Eskolan) ahalbideratu baitzioten. Horregatik, Fausto kontsideratua izan da Ilustrazio denborako izadizaleen eta geologo isabelinoen arteko lotura. Bizitzaren azken urtetan, bere ikasketak eta esperientzia guztiak zenbait liburutan idatzita utzi zituen; besteak beste, ondoko hauetan: **“Meatzaritzaren eragina nekazaritza eta industrigintzan”**, **“Meatzaritza Espainian”**, **“Amalgamazkoaren teoria”**, e.a. 1833an hil zen, 76 urte zituela. Bere gizairudi bat Zaragozako Medikuntza Fakultatearen sarreran aurkitzen da.

Orain dela zenbait urte arte, uste orokorra izan da wolframaren aurkikuntzaren aitzindaritza Faustok eraman zuela eta ez Joan Joxek. Honen arrazoia izan daiteke Joan Joxe gazterik joan zela Ameriketara, inoiz gehiago itzultzerik ez izateko, eta Faustok, aldiz, Espainian amaitu zituen bere egunak, ohorezko itzalez inguraturik.

Ikerkuntza historiko sakon batek azaldu du, azkenean, gertaerak nola izan ziren. Izan bedi bi anaien ohoretako eta beren gaurko jarraitzaileen etsenplurako.

## AZKENA

Poeta joriak *egilea idazle ageri ez den liburua ez duk liburua idazleontzat* izkiribaturik utzi arren, liburu hau egin duenak, bere sufrikarioan nahiz plazeretan, lagun izan dituen beste idazle eta adiskideak ezin ditu, lana buruturik dagoen honetan, eskertu gabe laga.

Mila esker, bada, ni bezain egile eta ni baino idazleagoak diren Antton eta Kiti, Joxe eta Joxagus, Xabier, Koldo, Elena eta Maixa, Jon, Gari eta Ekai, Joserra, Inaxio, Gorka eta Paulo...beste istorioren batean ere elkartuko garelakoan, ez adiorik.